ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2008ko urtarrilaren 7a > Astelehena > III. urtea > 172. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Entzuleen aniztasuna areagotzea da gure erronka nagusietako bat"

**Iñigo Alberdi** Euskadiko Orkestra > 06

**G2a** Yllanaren 'Buuu!' antzezlana Elgetan > 23

**BERGARA** Irala kaleko urbanizazio lanei ekingo diete gaur, astelehena > 11

**KIROLA** Hanka Labanka, adin guztiko patin zaleen elkartea > 15

**KULTURA** Kantari lehiaketako gaztetxoak, GOITBn aste honetan > 26

**AP-1 AUTOBIDEA** > ARETXABALETA

# Izurieta auzoko lur-jausia konpontzeko lanak salatu dituzte

**IZURIETA** Lanak burutzeko behin behineko okupazioa egiteko baimenik ez dutela salatu dute auzotarrek

**URTEBETE** Izurietako lur jausia orain dela urtebete, 2007ko urtarrileko elurtearen ondorioz gertatu zen

**ZARIMUZ** Eginda zeuden bi tuneletako bat lurrez estali zen lurjausi baten ondorioz, abenduaren 5ean > 04

**ARRASATE** > ATXILOKETAK

## Ustezko bi ETAko kide, atxilotuta

Guardi Zibilak atzo eguerdian jarritako kontrol batean atxilotu zituen > 05

## Gabonak amaituta, beherapenetan murgiltzeko aukera

Lanera eta eskolara itzultzeko eguna izango da gaurkoa askorentzat. Era berean, Gabonak atzean utzita, urte berria hastearekin batera asmo berriei heltzeko gogoa azaltzen du jende dezentek. Eta urtarrileko aldapari aurre egiteko modurik onena beherapenetara joatea dela diotenak ere badira. Debagoienean, gaur hasiko dira beherapenak. Dendari batzuen arabera, jendea ez da lehen adina joaten. Edozelan ere, badute indarra; erosle batzuk beherapenetan adituak omen dira. > 02-03



**BEHERAPENAK** Gaur hasiko dira beherapenak Debagoienean. Irudian, erosle bat Bergarako denda baten, zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**GIZARTEA** > AGIRIAK

## NANa egiterik ez Arrasaten

Nortasun Agiri Nazional berria elektronikoa da eta aurrerantzean EAEko hiru hiriburuetan eta Irunen tramitatu ahal izango da dokumentu hori. Hamar urtez egin ahal izan da Arrasaten. > 05

**DEBAGOIENA** > ELKARTASUN KANPAINA

## Sahararen aldeko kanpaina, azken txanpan

Data hauetan ohikoa bihurtu denez, ibarrek hainbat taldek Saharako errefuxiatuendako elikagaiak biltzen dihardute egun hauetan. Arrasateko Nubi elkartea, Aretxabaletako Iesbaa eta Bergarako Bubisher elkartea kanpainaren azken txanpan dira.

Estatuan, Euskal Herriari honako produktuak batzea tokatu zaio: arroza, atuna oliotan, azukrea, dilistak eta konpresak. Dirulaguntza emateko aukera ere badago. Otsailaren hasieran aterako da Euskal Karabana Tindufera, errefuxiatuen kanpamenduetara. > 09

**GABONAK** > ERREGEAK

## Errege Magoak, ibarrean

Ekialde Urrunetik abiatuta, eta bidaia luze baten ondoren, zapatuan Gaspar, Meltxor eta Baltasar Errege Magoak iritsi ziren Debagoienera. Opari mordoa banatu zituzten gurean. > 05

**GIZARTEA** > URTE BERRIA

# Asmo eta egoera berriak onak izango direlakoan

**BEHERAPENAK** Gaur, astelehena, hasten dira beherapenak ibarrean, eta, urtarrileko aldapari aurre egiteko, dendetara joango da jende asko

**EKONOMIA, GELDO** Mundu osoan, ekonomia gelditu egingo da 2008an, eta urtarrila garai ona izan daiteke etxeko gastuak aztertu eta batzuk kentzeko

**GURE BURUA ZAINDU** Neguan, erraza da kilo batzuk hartzea, eta argaltzea nahi izaten dute askok; gorputza garbitzeko dieta egin daiteke egunotan

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Urtarrila hasi berri dugun honetan, une aproposa izango dute askok 2008ari begirada bat bota eta zelan datorren asmatzeko ahalegina egiteko; eta, gure esku ez dagoena jakiteaz gain, datorrena datorrela, gertu egoteko, gure esku badagoenaz gogoeta egingo dute askok; hortik datoz urte berriko asmoak, hain zuzen ere.

Adituek esaten dute 2008. urtea ekonomiaren geldiunearena izango dela; hala ere, edo akaso horregatik, beherapenetara pozik joango dira asko eta asko. Horrez gain, hainbatek neguan hartutako kiloak kendu nahiko dituzte, edo kirola egiten hasi; horiek bete nahi izaten dute askok, behintzat, urtea hasitakoan.

## Ekonomia

**Mundu osoan, finantza krisia iragarri dute 2010. urtera arte; etxeko gastuekin kontuz ibili beharko gara datorren urtean.**

Estatu osorako aurreikuspenak ez dira batere pozgarriak. Euskal Herrian hain indartsua den eraikuntza sektorea gelditu egingo da, eta baita etxeko kontsumoa ere. Barne Produktu Gordina %2,8 haziko dela aurreikusi dute –iazko, %3,8 zen aurreikuspena urte hasieran. Horren guztiaren ondorioz, langabezia igo egingo da: %8,3ko langabezia tasa espero da urte bukaerarako –hasieran, Espainiako Ekonomia Ministerioak %7,9ko tasa aurreikusita zuen. Izan ere, mundu osoan finantza krisia areagotu egingo da 2008an, eta herrialde guztietan sortu da geldialdia. Berau 2010ean arintzea espero da.

Eguneroko gastuari dagokionez, iaz oinarrizko jatekoen prezioek gora eta gora egin zuten; hala, esne kartoia euro bat inguru da; lau jogurt, bi euro; kafea %64 igo zen 2007 urtean… Urtarrileko aldapa areagotu egiten da, Gabonetako gastuaz gain, prezio igoerak urtarrilean izaten direlako. Hala, ogi barra 5 zentimo gehiago kostatzen da; eta administrazioak finkatutako tasak ere igo egin dira: elektrizitatea %3,3 garestitu da; gasa, %4,8; ura, %9… Telefonoa ere %3 gehiago ordaindu beharko dugu. Tabakoa eta autobideak ere garestiagoak dira.

Urtarrileko aldapari aurre egiteko modu zuhurrena dauzkagun




**ORAIN DA SASOIA** Markeliñe dendako Arantxa de la Fuentek ere gaur hasi ditu beherapenak. LEIRE KORTABARRIA



**GORPUTZA MUGITU** Erabiltzaile batzuk, Arrasateko muskulazio gelan ariketa egiten. LEIRE KORTABARRIA

gastu ohikoenak aztertzea eta merezi dutenak eta ez dutenak erabakitzea da; baita urteko lehen soldata edo Gabonetako aparteko ordainketa zuloak estaltzeko aprobetxatzea ere.

## Beherapenak

**Debagoienean, gaur, astelehena, hasiko dira beherapenak; dendari batzuen esanetan, ordea, jendea ez da lehen adina joaten.**

Urtarrileko beherapenak dira askoren poltsikoaren oxigenoa. Aurten, beherapenak gaur, astelehena, hasten dira eta martxoaren 31ra arte izango dira. Beherapenen filosofia produktu berbera –hau da, kalitate maila berekoa– prezio baxuagoan eskaintzea da, eta beherapena ezin da %20 baino txikiagoa izan.

Debagoieneko dendek ere beherapenak hasiko dituzte. Erosleendako ez ezik, merkatariendako ere onak izaten dira beherapenak, neguko arropak kentzen joateko; baina, beherapenek sasoi bateko indarra galdu dutela esan digu Bergarako Markeliñe umeendako arropa dendako Arantxa de la Fuentek: "Orain, gehiago kostatzen zaio jendeari etortzea; beharbada, bizitza garestiago dagoelako. Lehen, euforia antzeko bat zegoen beherapenen inguruan; orain, hasieratik eskatzen dute %60ko beherapena-eta".

Merkatari horren esanetan, hala ere, jendea oraindik egoten da beherapenen zain: "Bai, galdetzen digute beherapenak noiz diren-eta; bezero batzuk beherapenetan bakarrik datoz".

De la Fuentek gaineratzen du saltoki handien lehia ez dutela igartzen beherapenetan modu berezian: "Jendeak kalitatea eskatzen du, eta markako edo kalitatezko arropa erosteko aprobetxatzen ditu".

## Jateko ohiturak hobetu

**Dieta-mirariak alboratuta, umore asko, sasoiko jatekoak eta ariketa fisikoa batuta, neguan hartu ditugun kiloak ken daitezke.**

Gabonetan, tentazioak ugari izaten dira, eta urtarrilean, pisatzean, damutu egiten dira asko, turroien, bonboien, afari eta ospakizunen… ondorioak gorputzean

**Beherapenek badute indarra; zenbait dendarik diote erosle batzuk bakarrik sasoi horretan joaten zaizkiela dendara**

**Kiroldegietara, jende gehiago joaten da urtarrilean, eta ariketa euren kontura egitea nahiago izaten dute**

igartzen dituztenean. Bada, horrek ekar dezakeen etsipenari aurre egiteko, mirariak eskatu barik, honako formula jarraitu behar da: umore ona, sasoiko janaria eta ariketa. Horixe da Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizioan aditu oñatiarrak gomendatzen duena: "Formula hori jarraituz gero, neguan hartutako bizpahiru kiloak ken daitezke"; horixe baita jende gehienak hartzen duena.

Lehenengo pausoa ez dramatizatzea da, aditu horren esanetan, eta gozatu duguna ontzat ematea. Gero, leku guztietan iragartzen dituzten mirarizko dietei jaramonik ez egitea, izan ere, Diaz de Monasteriogurenen esanetan, "hilean 500 gramo kendu-ta, ondo gabiltza".

"Urtarrilera betekadarekin iristen gara, eta lehenengo, gorputza depuratu behar dugu", dio elikaduran adituak. Horretarako, bi bat astean egin dezakegun dieta bat proposatzen du: baraurik, limoi-zukua; bazkaltzeko, lehenengo, sasoiko barazkiak, patatarekin, urdaila babesteko; bigarren plater moduan, koipe gutxi duen proteinadun jateko bat, arraina edo oilaskoa, esaterako; meriendatzeko, konpota, fruta, infusioren bat…; eta, afaltzeko, salda purearekin, esparragoak eta arraina, jogurta eta fruta… horrelako aukera bat. "Egun batzuk eta gero, has gaitezke lapikokoa, arroza, pasta… jaten", dio Diaz de Monasteriogurenek.

### Ariketa fisikoa egin

**Kiroldegietara hasten joaten da jende asko urtarrilean. Adituek kiroldegiko fitness gelan hastea gomendatzen dute.**

Ondo jatearekin bat, gorputza astintzea da urtea ondo hasteko modu bat. Askok, Aste Santura eta, batez ere, udara begira, hartzen dute kirola egiteko erabakia. Xabier Azkaratek spinning eta pilates ikastaroak ematen ditu Arrasateko eta Oñatiko kiroldegietan, eta, bere esanetan, "igartzen da, bai, urte hasieran jende gehiago etortzen dela kiroldegira; ez da hainbeste igartzen taldeetan, seguru asko, taldeak eratuta daudelako. Gehienak euren kontura hasten dira ariketa egiten". Gainera, berak gidatzen dituen taldeetan izena emanda zeudenetatik abenduan huts egiten zuten batzuk urtarrilean berriz agertzen direla baieztatzen du Azkaratek. Hala ere, argaltzeko benetako sukarra Aste Santuak pasatu eta uda gerturatu ahala igartzen dela esaten du irakasle horrek.

Hori bai; gimnasia irakasle dela jakinda, asko inguratzen zaizkio urtarrilean neguan hartutako kilo horiek kentzeko aholku eske: "Askok galdetzen didate zer egin dezaketen, eta nik esaten diet urte osoko lana dela, ez orain bat-batean egitekoa. Orain hasi nahi duenari, bere herriko kiroldegiko fitness gelan hastea gomendatuko nioke, poliki-poliki, gela horretan denetarik lantzeko aukera du-eta, aholkuak emango dizkion begirale batekin, gainera", esaten du Azkaratek; "geroago hasi ahal izango da beste zerbait egiten".

Badirudi ikasi beharreko zerbait hauxe dela: egin nahi duguna edo urteak gustatzen ez zaigun zerbait dakarrenean, pazientziaz eta umore onez hartzea.

**Enara Agirre** > Psikoterapeuta

## "Urtarrileko aldapak gastatu dugunarekin lotura dauka, baina baita nortasunarekin ere"



GOIENKARIA

L.K. > ANTZUOLA

**Enara Agirre psikoterapeuta da; Psikologian lizentziatu zen, eta gero, Gestalt psikoterapia hiru urtez ikasi zuen. Antzuolan dauka kontsulta. Gabonetako eta Gabon ondorengoko animuaz berba egin dugu berarekin.**

**Gabonetan, triste egoteko joera handiagoa dagoela esaten da…**

Jende askok Gabonak urte amaierarekin lotzen dituela kontuan hartuta, egia da askok urtearen balorazioa egiteko be erabiltzen dituztela egun horiek, aurreko urtearekin alderatuz. Urtea norberarendako zelakoa izan den arabera be, tristura edo poza egon daiteke. Baina egia da, orain arte, Gabonak familiarekin batzeko izan direla, eta ohitura hori dutenendako, egun horietan, norbait hil bada edo bertan ezin bada egon, Gabonak tristeagoak izan daitezke.

**Gabonetako eta udako oporrak, bada, desberdinak dira?**

Bai. Udan, disfrutatzeko eta deskantsatzeko hartzen ditugu oporrak, eta Gabonetakoak, berriz, Gabon egunak tartean daudelako. Oporretatik itzulera norberak oporrok zelan bizi dituen arabera doa. Batzuendako, lanera bueltatzea, bizitzeko erritmoa aldatuz, ordutegi zorrotzarekin… izan daitekeena, beste batzuendako eguneroko-tasunean sartzea izan daiteke, horrek eman dezakeen lasaitasunarekin.

**Urte berria hasteak badu eraginik jendearen jarreran eta animuan?**

Urtea bukatzeak ze garrantzia duen norberarendako, bada, halakoa izango du urte hasiera ere. Beste batzuendako, egun arrunta da.

**Asmo berriak urte hasieran egiteak errazago egin dezake betetzea?**

Asmoak egiteak bere lana dauka, modu kontzientean egiten badugu; izan ere, zertan hobetu dezakegun pentsatzeak dakar, zertan gelditutа gauden, zertan eboluzionatu nahi dugun… Helburuok proposatzearekin, ematen du egiten ditugun gauza askori zentzua ematen diegula, eta horrek indarra ematen du jarraitzeko.

**Urtarrileko aldapa hain traumatikoa da, psikologikoki?**

Zenbat diru gastatu dugun, ahal genuen baino gehiago gastatu dugun… horrekin oso lotuta dago *aldapa* hori bakoitzak nola biziko duen.

Hala ere, nortasunaren arabera goibeldu gaitezke: edalontzia erdi hutsik ikusteko joera duenak gertuago izango du goibeltasuna.

**Zer egin urtea ondo hasteko?**

Uneaz gozatzea, denbora hartzea gure burua hobeto ezagutzeko. Horrekin, kontzienteago egongo ginateke, eta gure gauzen ardura geuk hartuko genuke. Kanpoko faktoreak ikusten baditugu gertatzen zaigunaren eragile moduan, zerbaitek gogaitzen gaituenean, ez dugu pentsatu ere egingo geuk ze ardura dugun horretan, eta, hori jakin ezean, ezingo dugu jakin zer aldatu, zer hobetu, zer ikasi… edo on egin digun zerbaiten aurrean zelan egin dugun, berriro egin ahal izateko. Norbera da bere bizitzaren eta bizitzeko eraren jabe.



**AP-1 AUTOBIDEA** > ARETXABALETA

# Izurieta auzoko lur-jausia konpontzeko lanak legez kanpokoak direla salatu dute

Lanak burutzeko behin behineko okupazioa egiteko baimenik ez dutela salatu diote auzotarrek

Izurietako lurjausia, duela urtebete, 2007ko urtarrileko elurtaren ondorioz gertatu zen



**BASERRIAK** Tunelaren gaineko lurretan dauden baserrietako bizilagunak kezkatuta daude. AITOR ZUBIZARRETA

**MIREIA BIKUÑA** > ARETXABALETA
Urtebetez lurjausiak eragindako kalteak konpontzeko lanak etenda egon ondoren, abendu bukaeran hasi ziren berriro makinak lanean. Izurieta auzoko pinu batzuk moztu zituzten.

Bada, Izurieta auzoko, baina batez ere, Olabe baserriko bizilagunak oso haserre daude. "Orain arte ez gaituzte kontutan hartu", esan digu Olabe baserriko Aitor Zubizarretak, "eta, orain, bat-batean, lanak hasi dituzte berriro ere; eta, gainera, gure ustez, legez kanpokoak dira. AP-1 autobidea egiten duen enpresak gure lurretan pista bat egin behar du lurjausiak eragindako kalteak konpontzeko, eta ez digute baimenik eskatu". Izurietako bizilagunek diote lanak egiten dituen enpresak behin behineko okupazioa egiteko "baimena" eskatu behar diela, "bada, guk ez dugu dokumenturik sinatu", esan digute.

Bidegi, Gipuzkoako Azpiegitura Agentziakoekin hitz egin dugu abenduan hasitako lanei buruz galdetzeko, eta, prentsa arduradun Oscar Recaldek, lan haien inguruko berririk "ez duela" azaldu digu.

Halaber, gaineratu digu, AP-1 autobideko lanak "handiak" direla, eta makinak beti ezin direla martxan egon.

Gainera, lanak orain hasteak Izurieta auzoko bizilagunen kezka handitu du. "Hau da halako lanak egiteko eperik txarrena. Euria, izotza edo elurra egiten badu, lurra asko bustiko da eta iaz gertatutako berdina gerta daiteke", esan digute Olabe baserrikoek. "Gu behintzat nahiko kezkatuta eta larri gaude, gure baserria tunelaren gaineko lurretan dago-eta".

**2007KO URTARRILEAN**
2007ko urtarrila bukaeran egindako elurtearen ondorioz Izurieta auzoan dagoen tunelaren gaineko lurrak mugitu egin ziren. Lurjausi hark ikara sortu zuen Izurieta auzoko bizilagunen artean, eta batez ere, Olabe baserriko bizilagunen artean. "Lehenengo lurjausia izan eta hamabost egunera lurrek beherago egin zuten, haiek eusteko zegoen horma apurtuz", azaldu digu Zubizarretak. Hala, une hartan inork ez zuen kalteen inguruko ardurarik hartu. "Ez zuten inongo neurririk hartu. Esan ziguten kalteak konponduko zituztela; hala, ekainean proiektu berri bat erakutsi ziguten, eta neurriak ere hartu zituzten", azaldu digute, "bada, egoerak bere horretan jarraitzen du".

Egoera konpontzen ez den artean, Aretxabaletako Izurieta auzoko bizilagunak zerura eta lurrera begira jarraituko dute iazkoa errepika ez dadin.

## AP-1 autobidea, zatiz zati

| ZATIA | AURREKONTUA | LUZERA | ZABALIK |
|---|---|---|---|
| Eibar-Bergara Iparra | 140 milioi € | 7,2 km. | 2003ko abendutik |
| Bergara Iparra- Hegoa | 77 milioi € | 4,2 km. | 2004ko uztailetik |
| Bergara Hegoa-Arrasate | 71 milioi € | 3,5 km. | 2005eko uztailetik |
| Arrasate-Eskoriatza | 106 milioi € | 6,3 km. | 2008 bukaeran |
| Eskoriatza-Isuzkitza | 192 milioi € | 10,8 km | 2008 bukaeran |
| Isuzkitza-Gasteiz | 122 milioi € | 12,9 km. | Erabakitzeke |

## Zarimuzko tunelean ere lur-jausia egon zen abenduan

Abenduaren 5ean Eibar-Gasteiz autobideko Zarimuzko tartean eginda zeuden bi tuneletako bat lurrez estali zen, lurjausi baten ondorioz.

Agarre-Goiko baserriko zelaietako lurrak, gainean zuen pisuaren ondorioz, behera egin zuten. Hala, lurjausiak hamabost metro inguruko horma aurretik eraman zuen. Istripua gertatu zen unean, inguruan langileak lanean zeuden arren, ez zen zauriturik egon; kalte materialak ordea, asko izan ziren. Hala, hainbeste ezustekorekin, AP-1 autobideko lanak luzatzen doaz.



Bi tuneletako bat guztiz estali zuen lurrak. MAIER URANGA

**ELGETA** > EUSKO JAURLARITZAK 383.000 EUROKO DIRU LAGUNTZA EMANGO DU

# Javier Madrazo Etxebizitza sailburua Elgetan izan da

Salbador kaleko urbanizazio lanak hilaren 14an hasiko dituzte; hilaren 10ean informazio bilera deitu du Udalak bizilagunekin


**BISITAN** Oxel Erostarbe eta Patxi Basauri Javier Madrazorekin Salbador kalean. E. SILVA

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Eusko Jaurlaritza 383.000 euroko diru laguntza eman du, besteak beste Salbador kaleko urbanizazio lanak egiteko. Proiektua bertatik bertara ezagutzera etorri zen hilaren 2an Javier Madrazo Gizarte eta Etxebizitza sailburua.

Urbanizazio lanak lehenbailehen egitea ezinbestekoa da. "Oso garrantzitsua da Jaurlaritzak jaso dugun dirulaguntza", esan du Oxel Erostarbe alkateak. "Badakigu lanok eragozpenak sortuko dituztela. Baina, emaitzak pena merezi duela uste dugu. Ea lortzen dugun etxebizitza babestuetara bizitzera joatekoak direnei epea aurreratzea".

**LANAK HILAREN 14AN**

Aspaldiko egitasmoen artean aurkitzen da Salbador kalea oinezkoendako jartzea. Datorren astean hasiko diren lanotan hiri-azpiegiturak berrituko dituzte, kalea oinezkoendako jarriko dute eta egoteko gune-eremu berriak egingo dituzte. Udalak bilera informatiboa egingo du bizilagunekin. Hilaren 10ean izango da, 19:00etan.

**OHARRA** > NAN ELEKTRONIKOA

# NANa egiteko aukerarik ez da izango Arrasaten

NAN berria elektronikoa izatea da horren arrazoia. Hiriburuetara jo beharko da aurrerantzean

**A.A/G.A** > BERGARA

Duela hamar bat urte ipini zuten Arrasaten Nortasun Agiri Nazionala egiteko aukera, Eibar, Zarautz, Tolosa, Beasain eta Azpeitian moduan. Espainiako Gobernuaren ordezkaritzak jakinarazi du, baina, urte hasieratik EAEko hiru hiriburuetan eta Irunen bakarrik tramitatu ahal izango dela dokumentu hori.

Ohiko nortasun agiria txartel elektroniko bilakatu izana da arrazoia. Tresneria berezia behar da horretarako, eta, momentuz behintzat, ez dago herrietara ekartzerik. Ondorioz, utzi egin diote Arrasaten zerbitzu hori eskaintzeari.

**ABANTAILAK**

Erakundeetara pertsonalki joan beharrean, tramiteak Internet bidez egin ahal izango dira aurrerantzean NAN elektronikoarekin. Sinadura bera ere elektronikoa izango da, eta norberak eskuz egindakoa bezain segurua. Faltsifikatzea, aldiz, orain arte baino zailagoa izango da. Bestalde, agiria tramitatzera joan eta egunean bertan NANa eskuetan dugula etxeratuko gara. Txanda hartzea ere orain arte baino errazagoa izango da, urte berriarekin batera, goizetan txanda telefonoz hartu ahal izateko modua ipini baitute Donostian (943 44 98 38 eta 943 44 98 39) eta Irunen (943 63 95 49). Gasteizen eta Bilbon ez dago oraingoz aukera hori, baina laster izatea espero dute arduradunek.

Nortasun Agiri Nazional berria egiteak 6,85 euroko kostua du. Informazio gehiago gura duenak Arrasateko Biztanleen Arreta Zerbitzura jo edota *www.dnielectronico.es* webgunea kontsulta dezake.

**OSPAKIZUNA** > ERREGE KABALGATAK

# Errege Magoek opariak, gozokiak eta musuak banatu dituzte ibarrean

Etxeko txikienak irrikaz egon ziren zain, Ekialde Urruneko Errege Magoak gurera noiz iritsiko. Une hunkigarriak bizi izan zituzten elkarrekin

**GOIATZ ARANA** > BERGARA

Ekialde Urrunetik abiatuta eta bidaia luze baten ondoren, zapatuan ziren etortzekoak Gaspar, Meltxor eta Baltasar eta ez zuten hutsik egin: eguna iluntzeaz bat heldu ziren Debagoienera. Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan egin zituzten Errege Magoei ongi etorria emateko ekitaldiak eta une hunkigarriak bizi izan zituzten harrera egitera joandako neska mutikoek. Artalde koskorra aurretik zutela, antortxeroen argipean edota danbor-joleen doinuek girotuta sartu ziren batean eta bestean, bidaia luzea eurekin egin duten laguntzaileen konpainian beti ere. Errege Magoek haurrak agurtu eta musukatu zituzten, gozokiak banatu zizkieten eta urtean zehar ongi portatu al diren galdetuta agur esan zieten, gauean euren etxeetatik pasako ziren itxaropenarekin utziz.

Gizon misteriotsuek opari mordoa ekarri zuten eurekin debagoiendarren artean banatzeko; ibarreko neska-mutikoak zintzo ibili diren seinale. Txikiek ere, euren aldetik, bazuten Errege Magoei zer eskainia: etxera joaten zirenerako, esnea, ardoa, gailetak edota turroia eurentzako gertu zituztela kontatu ziguten.

Seguru, atzo goizean ez zela umeei birritan esan beharrik izango ohetik jaikitzeko.


**OÑATI** Mutiko bat Meltxor erregeari musu ematen. JOSETXO ARANZABAL


**ARRASATE** Plaza jendez bete zen Errege Magoekin. JOSETXO ARANZABAL

> ATXILOKETA

### Ustezko bi ETAko kide atxilotu dituzte Arrasaten

Ustez fitxatu gabeko bi ETAko kide dira atzo eguerdian, Arrasaten jarritako kontrol batean, Guardia Zibilak atxilotutako bi gizonezkoak: Igor Portu eta Martin Sarasola, 29 eta 30 urteko lesakarrak, Espainiako hainbat hedabideren arabera. EFE informazio agentziatik jakinarazi dutenez, autoan armak zeramatzaten. Atxilotuak Guardia Zibilaren Zuzendaritzara eraman zituzten, Madrilera.

> GARRAIO PUBLIKOA

### Otsailaren 1era arte ez du balioko hiriburuetara joateko

Diputazioak otsailera arte atzeratu du autobuserako txartel bateratuarekin Debagoienetik hiriburuetara joateko aukera. Debagoiena eta Debabarrena dira txartel bakarraren sisteman sartzeko Gipuzkoan gelditzen diren bailara bakarrak. Herriz herriko zerbitzuetan ezarrita dago urriaren 1etik, baina Donostiara joateko linean, esaterako, ez. PSE-EEk eta Aralarrek gogor kritikatu dute atzerapena.

Iñigo Alberdi Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkarteko (AEOS) presidenteorde izendatu dute. AEOSek 27 orkestra profesional eta bi gazte orkestra batzen ditu eta Felix Palomero Galiziako Orkestra Sinfonikoko zuzendaria da lehendakaria. Iñigo Alberdi gaur egun Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren zuzendaria da eta, besteak beste, erronka berriak izan ditugu hizpide.

**Iñigo Alberdi** > Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren zuzendari nagusia

# "Entzuleen aniztasuna areagotzea da orkestraren erronka nagusietako bat"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Iñigo Alberdi Soraluzen jaio zen 1973an eta Bergaran bizi da. Zuzenbide ikasketak egin zituen eta musika pedagogiako goi mailako titulua ere badauka. Musika arloan askotariko lanak egin ditu: kontzertuen antolatzaile, irakasle, musikari zein kritiko jardun du, besteak beste.**

**Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkarteko presidenteorde izendatu zaituzte. Zein da zure eginbeharra elkartean?**

Elkartea sortu zen orain dela 15 urte eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa sortzaileetariko bat izan zen. Batzen ditu Espainiako orkestra sinfoniko profesional guztiak eta bitartekari lanak egiten ditu orkestren datuak kudeatzeko, ministerioekiko harremanean... Hortaz, ordezkaritza lana da gurea. Bestalde, elkarteak paper garrantzitsua jokatzen du lan harremanei dagokienean. Orain zuzendaritzan talde berria sartu gara eta nik presidenteorde postutik presidenteak markatzen dituen pausuak jarraitzen ditut.

**Zein da oro har orkestra sinfonikoen egungo egoera?**

Espainian azken urteotan orkestra berri asko sortu da. Nazioartean Espainia oso merkatu interesgarria da; musikalki eszenatoki ona baina era berean gogorra. Borroka egin behar dugu kalitate musikala mantentzeko eta gizartean presentzia lortzeko.



Iñigo Alberdi Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkarteko presidenteorde izendatu berri dute. IRATI AGIRREAZALDEGI

**Eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarena?**

Euskadiko Orkestra da etapa berri honetan Espainiako zaharrenetarikoa. Kalitateari dagokionez oso maila ona du baina gero eta gehiago dira orkestra onak zein oso onak. Euskadiko Orkestraren ezaugarri nagusia da orkestra nazionala dela. Kontzertuak nagusiki lau hiriburutan egiten ditugu: Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Iruñean. Hortaz, gurea orkestra ibiltaria da egoitza Donostian badugu ere. Musikariei dagokienez, hasieran gehienak kanpotarrak baziren ere, gaur egun partaideak orekatuta daude; heren bat Euskal Herrikoa, beste heren bat Espainia eta Frantziakoa; eta gainontzekoak munduko beste herrialdeetakoak. Azken urteotan gero eta gehiago dira orkestran sartzen diren gazte euskaldunak. Orkestra hasi zenean musikari atzerritar asko Euskal Herrira etorri ziren eta orkestran jotzeaz gain, eskolak ematen zituzten. Horrela harrobia sortu zuten eta egun harrobi horretatik elikatzen da orkestra.

**Aurki bi urte beteko dira Euskadiko Orkestrako zuzendari nagusi postua hartu zenuela. Nola joan da epe hori?**

Oso polita izan da, batik bat 25. urteurrenarena. Balorazioa oso ona da. Enpresa guztietan bezala oztopoak eta krisi uneak izan badira ere, musikarien, administrazioaren eta erakundeen arteko elkarlanarekin gai gatazkatsuak konpondu ditugu.

**Zein izan dira gai gatazkatsuak?**

Bi izan dira nagusiki. 2007an hitzarmen kolektiboa geneukan negoziatzeko eta musikariek greba egin arren akordioa lortu genuen; 2010era arteko hitzarmena sinatu dugu. Beste gai garrantzitsu bat egungo zuzendari musikalen kontratuen amaiera zen. Ekainean amaitzen da euren kontratua eta bi zuzendariei buruzko nire balorazioa oso ona da. Baina batzorde artistikoak eta musikariek argi dute aldaketaren beharra. Hortaz, 2008ko ekainetik aurrera zuzendari berria, bakarra, izango dugu.

MUSIKARIAK

**"Azken urteotan gero eta gehiago dira orkestran sartzen diren gazte euskaldunak"**

ZUZENDARIA

**"2008ko ekainetik aurrera zuzendari musikal berria, bakarra, izango dugu"**

ENTZULEAK

**"Euskadiko Orkestraren altxorra publikoa da; entzuleak oso fidelak dira"**

**Mende laurdena bete du orkestrak 2007an. Berezia izan al da?**

Bai, noski. Urteurrenaren lema izan zen *Guztion urteurrena*. Euskadiko Orkestra ezaguna den arren, nahi genuen gehiago ezagutaraztea eta jendeak jakitea zerbitzu publikoa dela. Hortaz, iaz hainbat ekimen egin genituen: umeei orkestraren berri emateko *Tempo di martxa* autobusa ibili zen herriz herri; orkestraren kontzertuak egin genituen herrietan; nazioarteko bira Brasilen eta Argentinan; Francisco Escuderoren *Gernika* operaren grabazioa; eta 25 urtetako historia batzen duen liburua.

**Urte hauetan barrena grabazio asko egin ditu orkestrak, ezta?**

Orkestrak 25 urtetan 35 grabazio egin ditu eta orain urtean bi edo hiru disko ateratzen ditugu. Orain ekimen bat dugu abian umeendako musika klasiko bilduma bat kaleratzeko euskaraz.

**Zein helbururekin egiten dituzue atzerrira birak?**

Nazioarteko 13 bira egin ditu 25 urtetan. Orkestraren helburuetariko bat hasieratik izan da Euskal Herriko kulturaren enbaxadore izatea. 2010era arteko proiektuak ere gertu dauzkagu.

**Euskal Herrian zein harrera du Orkestra Sinfonikoak?**

Euskadikoa da Espainian abonatu gehien dituena; 7.000, guztira, hori da harreraren adierazlea. Orkestraren zeregin nagusia abonu-kontzertuak dira, hiriburu bakoitzean urtean 12 eta Donostian 24. Leku guztietan betetzen ditugu antzokiak baina beti saiatu behar gara gizarteko beste esparru batzuetara hedatzen. Euskadiko Orkestraren altxorra publikoa da; entzuleak oso fidelak dira eta abonua egiteko itxaron zerrenda dago. Orkestraren jarraitzaileak bi muturretakoak dira batik bat: 55 urtetik gorako zaleak batetik eta musika ikasle gazteak bestetik.

**Zein dira Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren erronkak?**

Musikalki hobetzea. 25 urtek heldutasuna eman diote orkestrari eta lortu behar dugu kontzertu guztietan maila gorena ematea. Entzuleen aniztasuna areagotzea da beste erronka bat. Horretarako bidean oso garrantzitsuak dira kontzertu hezigarriak, umeendako eta gazteendako egiten direnak. Musika klasikoarekiko eta orkestra batekiko zaletasuna landu egin behar da. Euskal Herrian kulturak, eta musikak bereziki, herrigintzarako botere handia dute. Hortaz, Euskadiko Orkestra izan daiteke kohesiorako eta kultura bultzatzeko faktore garrantzitsua.

**Nolako etorkizuna aurreikusten duzu orkestrarendako?**

Erronkaz beteriko etorkizuna izango da, baina gure lan taldea lanean fin dihardugu eta bide beretik jarraituko dugu. Musikalki toki onean kokatuta dago eta gizartean ere egoera ezin hobean eta lidergoa mantenduko dugu.

## oharrak eta deialdiak

BERGARA

**> 1956an jaiotakoek bazkaria egingo dute**

1956an jaiotakoek batera bazkaltzeko aukera dute urtarrilaren 26an, zapatua, Zabala jatetxean. 19:30ean, frontoian batuko dira; 20:15ean, argazkia aterako dute plazan; eta 21:30ean, musikaz alaitutako afaria egingo dute. Zabala jatetxean eman behar da izena (943 76 20 07), urtarrilaren 19a baino lehen.

DEBAGOIENA

**> Gipuzkoako hondakinen aspektu ezberdinak**

Mankomunitateak Gipuzkoako hondakinen gaineko erakusketa ekarri du Debagoienera: *Amesgaiztorik ez!* Hondakinen sorreraren eta kudeaketaren ingurukoak jasotzen ditu atal ezberdinetan banatuta, eta etorkizunera begira ere jartzen da. Erakusketa Bergarako Aroztegi aretoan dago ikusgai hilaren 3az geroztik eta, 16ra arte, Oñati, Arrasate eta Aretxabaletatik ere pasako da.

BERGARA

**> Euskara batzordeak egutegia kaleratu du**

Udal Euskara batzordeak 2008ko egutegia kaleratu du: hormarako egutegi handia eta eskura edukitzeko txikia. Inork jaso ez badu eta nahi badu, Udaltzaingoan eska dezake.

ELGETA

**> KZguneko dinamizatzailea, hilaren 18an**

Elgetako KZguneko dinamizatzailea urtarrilaren 18an egongo da gelan, 11:00etatik 13:00etara. Ikastaroa egin nahi duenak bertara joatea besterik ez dauka. Hurrengo, otsailaren 1ean etorriko da dinamizatzailea.

ARAMAIO

**> Dinamizatzailea gaur egongo da KZgunean**

KZguneko dinamizatzailea gaur, astelehena, egongo da gelan, 09:00etatik 11:00etara. Ikastaroren bat egin gura duenak hara joan eta hantxe aukeratzea besterik ez dauka.

ESKORIATZA

**> KZguneko begiralea hilaren 11n etorriko da**

KZguneko dinamizatzailea egubakoitzean, hilak 11, egongo da gelan, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Ikastaroa egin gura duenak hara joatea besterik ez dauka.

ARRASATE

**> Ludotekan lan egiteko hezitzaile bila**

Txatxilipurdi elkarteak hezitzaileak behar ditu Arrasateko ludotekan aste barruan lan egiteko. Interesa dutenek 943 79 54 46 telefonora deitu edo *haurrak@txatxilipurdi.com* helbidera mezua bidal dezakete.

OÑATI

**> 'Diario de una niñera' filma emango dute gaur**

*Diario de una niñera* filma ikusteko aukera dago gaur, astelehena, kultura etxeko zinema aretoan, 19:30ean.

ESKORIATZA

**> 'Heldutasunaren atsegina' delako ikastaroa**

Heldutasunaren atsegina, barne orekaren bila delako ikastaroa antolatu du Amuska emakume elkarteak urtarrilaren 24rako. Izenematea hilaren 9an edo 10ean egin behar da, kultura etxean, 18:00etatik 19:00etara; bazkideendako, 42 euro da, eta gainerakoendako, 45.

ANTZUOLA

**> Dinamizatzailea gaur egongo da KZgunean**

KZguneko dinamizatzailea gaur, astelehena, egongo da gelan, 11:00etatik 13:00etara. Ikastaroren bat egin gura duenak hara joan eta hantxe aukeratzea besterik ez dauka.

OÑATI

**> 'Los Pagagnini' antzezlanerako sarrerak**

Yllana taldeak eta Ara Malikian biolinjoleak *Los Pagagnini* musika eta antzerki ikuskizuna egingo dute hilaren 20an Santa Ana antzokian. Sarrerak salgai daude 10 eurotan kultura etxean.

ARRASATE

**> NA ezingo da Arrasaten tramitatu aurrerantzean**

Nortasun Agiria ez dute Arrasaten tramitatuko aurrerantzean; izan ere, NA elektronikoa da orain, eta berau egiteko tresneria ez dute herrietara ekarriko. Aurrerantzean, bakarrik Donostian, Irunen, Gasteizen edo Bilbon egin ahal izango da nortasun agiria. NA elektronikoaren gaineko informazioa dago *www.dnielectronico.es* helbidean.

ANTZUOLA

**> Aratusteetako entseguak martitzenetan egingo dituzte, eta parte hartzeko dei egiten dute**

Antzuolan, Aratusteetan, otsailaren 3an, euskal dantzak egiteko entseatzen hasiko dira; hain zuzen, martitzenetan batuko dira, eskolan, 20:00etan. Mutilek Sorgin Dantza egingo dute, eta neskek, makil dantza bat. Entseguok nesken dantzarako dira. Antolatzaileek dei egiten dute jendeak parte hartzeko.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



**Usoa Agirre** > Goienako Telematika arduraduna

# Urte berria, datu zaparrada berriak

Urte berriarekin batera etorri zaizkigu inkestak, urte zaharreko datuen laburpenak eta berriaren iragarpenak. Inkesta baten arabera Errege Magoak baino nahiago dugu Olentzero, legatza jatea asko gustatzen zaigu gipuzkoarroi eta Benito Lertxundi eta La Oreja de Van Gogh entzuten ditugu. Zuri egin dizu baten batek galderarik? Ez, niri ere ez, baina itxuraz horrelakoak gara gipuzkoarrak..

Prezio dantza ere izan dugu urte hasiera honetan: ogiaren prezioak gora egin du, jakin dugu joan den urtean etxebizitzen prezioek gora egin zutela eta aurten ere gora egingo dute, gutxi bada ere. Biztanleen gorabeheren berri ere izan dugu: Debagoienean biztanleak galdu dituzte Arrasate, Bergara eta Leintz Gatzagak; gainontzekoetan, berriz, gora egin du biztanle kopuruak.

**"Har dezagun denbora pixka bat ingurukoari erreparatu eta aztertzeko"**

Urte hasierako ajearekin batera etorri zaizkigu datu hauek guztiak, ondo barneratzeko astirik izan gabe. Horrelaxe etorriko zaizkigu urte guztian zehar ere datu eta albisteak. Urte berrirako proposamen bat: har dezagun denbora pixka bat ingurukoari erreparatu eta aztertzeko.

**> Maitasun gorroto erlazioa dut Gabonekin: iristeko gogoz izaten naiz, baina hasi bezain laster izaten dut bukatzeko gogoa, egunerokotasunera iristeko gogoa. A ze betekadak egin ditugun aurten ere!**

**> Erregeak portatu dira? Ezer jaso ez duzuenok orain duzue zuen buruari opari bat egiteko aukera, beherapenetan. Ea gustatzen zaizuen zerbait topatzen duzuen, Gabonetako "sakeoen" ondoren.**

## debagoiendarrak kanpoan

**Idoia Linazisoro** > Bergara

# "Donostiako Alde Zaharra herri txiki bat bezalakoa da, lasaia"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Donostiako Alde Zaharrean bizi da Idoia Linazisoro bergararra. 19 urte zituenean joan zen Donostiara, idazkaritza ikasketak egitera. Behin ikasketak amaitu zituenean, Donostian geratu zen lanean. Bi seme-alaben ama da eta, orain, bere tokia Donostian dagoela esan digu Linazisorok. Gabon oporrak aprobetxatuz, Bergaran izan da etxekoak eta lagunak bisitatzen.**

**Noiz joan zinen Bergaratik Donostiara bizi izatera?**

Badira urte batzuk Donostiara etorri nintzela; 19 urterekin etorri nintzen, hain zuzen. Idazkaritza ikastera etorri nintzen. Gero, nire gizona zena Donostiakoa denez, han geratzea erabaki genuen. Lanean ere Donostian hasi nintzen; hortaz, nire lekua Donostian dagoela esan dezaket. Bi seme-alaba ditut eta hauen tokia Donostian dago.

**Nola moldatu zinen Donostiako bizimodura?**

Ez nuen batere arazorik izan. Ni Donostiako Alde Zaharrean bizi naiz; eta, hau herri txiki bat bezalakoa da. Gainera, aukera zabala eskaintzen duen herria da Donostia: kultura, kirola, aisia...

Bestalde, auzo ezberdinak daude. Hortaz, Alde Zaharretik Grosera, Amarara edo Aietera mugitzen bazara, beste toki batera joatea bezala da. Zure auzotik irten ezkero, jende ezezagunarekin egiten duzu topo.

**Etortzen zara Bergarara?**

Egia esan, orain oso gutxi joaten naiz Bergarara. Noizean behin, etxekoak eta lagunak ikustera joaten naiz, baina gura baino gutxiagotan.



**Idazkaritza ikasketak**
Orain dela 20 urte ikastera joan zen Donostiara; ordutik, han bizi da. Loradenda batean egiten du lan.

**Gabon egun hauetan egongo zinen Bergaran.**

Bai, Gabon opor hauek aprobetxatu ditut Bergarara etorri eta familiakoekin egoteko. Urtero etortzen gara Gabonetan.

**Gainera, Errege bezpera egun handia izaten da Bergaran!**

Bai, gure etxean Erregeak ospatzen ditugu. Lehen Errege gauean lagunekin irteten nintzen; Bergaran egun handia izaten da Errege gaua, giro paregabea egoten da.

Orain, berriz, etxera etorri eta familiarekin egoten naiz. Seme-alabek opariak jasotzeko aprobetxatzen dute eguna.

**Bergarako zer nabaritzen duzu faltan Donostian?**

Batez ere jendea da faltan nabaritzen dudana: familia eta lagunak. Kontuan hartu familia guztia Bergaran bizi dela. Beste alde batetik lagunak daude; txikitako lagun guztiak Bergaran daude.

**Bergarara berriz, zer ekarriko zenuke?**

Ez dakit. Pentsatu izan dut Bergarara bueltatzea baina uste dut nire tokia Donostian dagoela. Donostian Bergaran baino lasaiago ibiltzen naiz; jendeak ez nau ezagutzen eta lasaitasun hori eskertu egiten da.

**Eta etorkizunean etorriko zara?**

Ez dut uste.

kale inkesta

# Ba al duzu asmorik merkealdietara joateko? Aukera onak aurkitzen dira?



**Joana Fernandez**
Langilea
Bergara

Astia izanez gero, joango naiz merkealdietara begiratu bat ematera; agian eroriko da zerbait. Dena den, iruditzen zait beherapenetan ere gauzak garesti egoten direla; ez da erraza izaten pagotxak aurkitzea.



**Rosarito Larrañaga**
Etxekoandrea
Bergara

Ez naiz beherapenen zain egoten gauzak erosteko. Zerbait behar izanez gero, erosi egiten dut eta kito. Zerbait gustatu eta behar ez izanda ere, etxera eramateko arriskua ikusten diet merkealdiei eta halakoei.



**Maider Arregi**
Langilea
Bergara

Ez daukat beherapenetara joateko ohiturarik, joan izan naizenetan gauza handirik aurkitu ez eta jende mordoa ibiltzen delako. Jendeak 100 euro inguru gastatzen dituela? Diru asko iruditzen zait niri hori.



**Agustin Heis**
Erretiratua
Bergara

Badut ohitura merkealdietara joateko, gustatu egiten zaizkit gainera. Askotan aurrez begiratzen dut eta beherapenen zain geratzen naiz, laster badira. Zergatik erosi gaur bihar merkeago egongo bada?

irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

**goienkaria@goiena.com**

BERGARA
**> Taxi zerbitzu eskasa Errege bezperan**

Errege bezperan, gaupasa egitera Bergarara etorri zen irakurle batek hauxe esan digu: "Taxien geltoki kalera joan ginen lagun talde bat, baina han ez zegoen taxirik. Itxaron eta itxaron, eta han ez zen taxirik agertzen; azkenean, auto-stop egin behar izan genuen. Oso arraroa egiten zait halako gau baten hain denbora luzean taxirik agertu ez izana; ez dakit benetan uste baino lanpetuago zeuden edo euren artean ez ziren ondo komunikatu…"

ELGETA
**> Jolasparkean, ume txikienendako jolas gutxi**

"Oso ondo iruditzen zait Gabonetako jolasparkea ipintzea, aukera ona da-eta Gabonetan herrian gauden ume eta gurasoondako. Baina Udalari eskatu nahi diot, hurrengoan, 0-1 urte arteko umeendako eskaintza handiagoa jartzea; izan ere, tarte horretarako, puzgarri bat besterik ez zuten jarri", esan digu Elgetako ama batek.

BERGARA
**> Biribiletan eskulturak, gidariendako traba**

Gidari batek biribilak apaintzeko modaren gaineko gogoeta hau helarazi digu: "Ideia ona da biribilak apaintzea, baina gidarioi trabarik egin gabe. Izan ere, Bergara eta Antzuolara bidea ematen duen biribilean sekulako eskultura ipini dute, eta horrela ezin da ikusi parez pare autorik datorren edo ez. Lore batzuk landatzea ez da nahikoa, bada?"

usteak uste

**Mireia Bikuña**

## Kirola egin ala erretzeari utzi?

Eskuetan duzuen ale honetako asteko gaia urte berrirako ditugun asmoen berri idazten du Leire Kortabarria lankideak. Eta ez hori bakarrik! Urte berriko lehen albistegietan ere hori izan da notizia! Bada, badirudi urte hasiera bakoitzerako ditugun asmoak, badakizue: kirola egin, erretzeari utzi, ikasketak bukatu…, bi hilabeteko kontua izaten dela -hori diote behintzat adituek-. Hortaz, hasi orduko aspertu egiten garela. Hartan ere, pazientzia gutxi dugu. Eta, zeintzuk dira urte berrirako zuen asmoak? Nik batzuk baditut, baina ez ditut hemen azalduko. Hori bai, bi hilabeteko kontua baino gehiago izatea espero dut...

Bukatzeko, ondo portatu al dira Olentzero eta Errege Magoak? Urte berri on!

zorroztailea



**Juan Luis Azkarate**

# Obamakoak

Aldaketaren aldekoek eta muturreko kontserbadoreek irabazi dute Iowan. Barack Obama aukeratu dute lehenek, eta abortuen eta sexu bereko ezkontzen aurka dagoen Mike Huckabee bigarrenek. Hautagai demokratak iragarri du AEBetara «aldaketa aroa» iritsi dela frogatzen duela bere garaipenak.

**Anjel Lertxundi**
Berria > 08/01/05



Lehen round-a besterik ez du irabazi oraindik: Iowako caucusa, hain zuzen, John Edwards eta Hillary Clintonen aurretik. Lehendabizi jotzen duenak, ordea, birritan jotzen du.

Ez dakigu datorren azaroaren 7ko hauteskundeetarako demokraten kandidatura irabaziko duen, baina Barack Obama Azken Esperantza Zuria barik, halako Esperantza Beltz Bakarra bihurtu zaigu dagoeneko. Adierazgarria oso bere liburuaren izenburua: *The Audacity of Hope*.

Politikari ezberdin hau, Atxagaren ipuin batean barik, Txikagoko auzo txiro batean hazi zen. Pedigririk eta aitajaunarik gabeko politikoa dugu, inongo interes-talderi edota *lobbing*-ari loturik. Ia hutsetik hasita, milioika jarraitzale lortu ditu bere herrialdean: politika tradizionalaz nazkaturiko gazteak, gehienak.

Obama zein Hillary, Giuliano nahiz Huckabee, orain gutxi artekoarekin konparatuz, mundu oso ezberdin bateko potere handieneko agintaria izango da AEBetako hurrengo presidentea: aldaketa klimatikoaren, 100 dolarreko pretolio kupelaren, fundamentalista islamiarren mendekuaren eta potentzia berrien munduaren lehen agintaria, hain juxtu. Testuinguru berri honetan, AEBk George W. Bush artaburuari esker azken zortzi urtean galdutako gidaritza ideologikoa, ekonomikoa eta politikoa berreskuratu nahi baldin badu, aldaketa sakona egin beharko.

**"Azken Esperantza Zuria barik, halako Esperantza Beltz Bakarra bihurtu da Barack Obama"**

**"Zabaldu diezaiogun ate bat itxaropenari"**

Nago Obamak ordezkatzen duela munduan behar dugun aldaketa hori. Izan ere, eta oraingoz orain, guztiz ezinezkoa zaigu AEBei bizkarra emanda mundu berri bat eraikitzea.

Besteak beste, ondoko aldaketa hauek agindu ditu Obamak bere hauteskunde-programan: Iraketik aldegitea 16 hilabeten buruan, etorkin ilegalen integratzeko neurriak, kontsumo bajuko autoen sustapena eta zerga handiagoak aberatsendako.

Urte berri honen hasieran zabaldu diezaiogun ate bat itxaropenari. Eta eskaera bat: Obama, azaroaren 7an irabaziz gero, ez dadila bihurtu politikaren hamaikagarren *bluf*-a. Gari bezala, esperantzara kondenaturik dago mundua.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Maider Arregi, Goiatz Arana, Larraitz Zeberio eta Leire Kortabarria **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

**Arrasate** > 10 **Bergara** > 11 **Oñati**> 12 **Aretxabaleta** > 13 **Eskoriatza** > 13
**Antzuola** > 14 **Aramaio** > 14 **Elgeta** > 14 **Leintz Gatzaga** > 14




**> ARRASATE**
Kurtzetxikiko pinuak mozteko lanetan hasiko dira Aste Santuaren ostean **> 10**



**> BERGARA**
Gaur, astelehena, ekingo diete atzera ere Irala kaleko urbanizazio lanen lehen faseari **> 11**



**> ARETXABALETA**
Zare jantzi dendak eskuratu du erakusleihoen lehiaketako sari nagusia **> 13**

**DEBAGOIENA** > ELKARTASUN KANPAINA

# Sahararen aldeko kanpainaren azken txanpan ibarreko elkarteak

**SAHARARA**
Saharako errefuxiatuentzat elikagaiak batzen dihardute hainbat taldek

**KANPAINA**
Atuna oliotan, konpresak, azukrea, dilistak eta arroza eskatzen dituzte

**KARABANA**
Otsailean irtengo da euskal karabana



**SAHARA** Irudian, Bergaran ospatutako Sahara Orain jaia. ARTXIBOA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Ohikoa den moduan, ibarreko hainbat taldek Saharako errefuxiatuendako elikagaiak biltzen dihardute egun hauetan. *Sahararen aldeko euskal karabana. Piztu itxaropena* lelopean, atuna, azukrea, dilistak, arroza eta konpresak batzea da helburua.

Arrasateko Saharaen lagunen Nubi elkarteak abenduaren 26an ekin zion janari bilketari. Maria Algaba Nubiko kidearen hitzetan, "hurrengo astean batuko dugu material guztia, baina iazko kopuruen antzera gabiltzala esango nuke. Ikusi egin behar, ikastetxetatik oraindik ez gara pasa eta". Arrasaten, Hiper Eroskin, Consumen eta BM supermerkatuan dago laguntza emateko aukera. Era berean, bi kontu zabaldu ditu Nubik, dirulaguntza eman nahi dutenendako. Honakoak dira: La Caixan, 2100 1972 05 0100226062; eta Euskadiko Kutxan, 3035 0001 51 0010097799. Oñatiko hainbat denda eta saltokitan ere laguntza jasotzeko kaxak jarri dituzte.

**NUBI ETA IESBAA, ELKARLANEAN**

Nubi elkartea 2004. urtean sortu zuten Arrasaten. Maria Algabarekin batera, beste bi lagun ari dira elkartean gaur. Aurtengo kanpainan, besteak beste, iaz Saharan egondako Arizmendi ikastolako ikasleen eta Arrasateko Udalaren laguntza jaso dute kanpaina aurrera eramateko.

Aretxabaletako Iesbaa taldea Nubirekin elkarlanean ari da. 2006ko maiatzean sortutako elkartea da Aretxabaletakoa. Olaia Sagredo arduradunaren hitzetan, "Eroskin, kaxa bat jarri dugu elikagaiak biltzeko, eta jendea kanpainan parte hartzera animatu nahi dugu; izan ere, kontuan hartu behar da, biztanle bakoitzak kilo bat arroz edo dilista emango balu, sekulakoa lortuko genukeela. Datozen bi asteotan ikastetxetan egingo dugu kanpainan parte hartzeko deialdia eta hori da lortu nahi duguna, ibarreko jendeak kontzientzia har dezala Saharan bizi duten egoeraz; izan ere, premia larriak dituzte han".

## Bubisher elkarteak sahararren egoera salatzeko erakusketa egin zuen Bergaran

Otsailean aterako den Euskal Karabanaren helburu nagusia herri sahararrari ahalik eta elikagai gehien eramatea da, Tindufeko (Aljerian) errefuxiatuen kanpamenduetan jasaten ari diren elikagai falta ahal den neurrian asebetetzeko asmoz. Bergaran, elikagaiak batzeko kanpainak urtarrilaren 17ra arte iraungo du. Ibarreko beste hainbat herritan bezala, Estatuan, Euskal Herriari tokatu zaizkion produktuak –arroza, atuna oliotan, azukrea, dilistak eta konpresak– batzen dihardu Bubisher elkarteak. Era berean, laguntza ekonomikoa Euskadiko Kutxaren kontu zenbaki honetan egin daiteke: 3035 0080 94 0800054177. Bubisher elkartekoek Sahararen aldeko produktuen salmenta eta argazki erakusketa egin zuten abenduaren amaieran Bergaran. Hain zuzen ere, sahararren aurkako torturak eta Sahara mendebaldean bizi duten errepresioa salatzea zen erakutsitako irudien helburu nagusietako bat.



Gabonetan egindako erakusketako argazki bat. BUBISHER ELKARTEA

**INGURUMENA** > PINU MOZKETA

# Aste Santu ostean hasi nahi dute Kurtzetxikiko pinuak mozteko lanetan

Udalak ingurumena ahalik eta gutxien kaltetzeko debekatu du lurra hezea dagoenean makinak lanean jardutea



**PINUDIA** Guztira 30 hektarea, 9.000 pinu, moztuko dituzte Kurtzetxikin. GOIENKARIA

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Elorrioko zur-enpresa batek Kurtzetxikin dauden 40 urtetik gorako pinuak moztuko ditu aurten; 30 hektarea, 9.000 pinutik gora. Saila Udalarena bada ere Kutxa da pinuen jabea eta honi erosi dizkio arbolak enpresak.

Asmoa da pinu mozketa Aste Santu ostean hastea lurraren higadura saihesteko zorua lehorra egotea komeni delako. Lanak egiteko urtebete pasa beharko dela aurreikusi dute.

**BALDINTZAK**

Udalak eman du baimena basosoilketarako baina enpresari baldintzak ipini dizkio: pista gehiago ez zabaltzea; egur-parkea non eta nola ipiniko duten jakinaraztea; eta Urirakinetako ur sufretsudun iturburua, simak edo interes natural, kultural edo etnografikoa duten beste elementuak balizatzea.

Izan ere, Udalaren nahia da ingurumena ahalik eta gutxien kaltetzea. Horretarako, debekatu du lurra lehorra ez badago makinak sartzea eta pinuak pistetatik bakarrik garraiatu beharko dira kable bitartez.

**OIHANPEA ZAINDU**

Bestalde, Udalak eskatu du Kurtzetxikiko oihanpea ere zaintzea. Besteak beste eguzki-begian artea hazten da modu naturalean eta gaztainondoak ere badaude alde laiotzean. Hortaz, pinuak moztuz arren oihanpea hazten utziz gero basoa berreskuratu daitekeela uste dute eta ondoren, garbitzea eta zaintze izango litzateke Udalaren ardura. Oraindik erabaki zehatzik hartu ez badute ere, herritik gertu egonik, Kurtzetxiki aisialdirako leku egokia izan daiteke udal teknikarien ustez.



ARTXIBOA

## Etxeko txikiak Txikilandiaren handitasunean

Eguaztenean hasi eta zapatura bitartean umeek bete dute Musakolako kiroldegia. Txikilandia haur parkea ipini du eurendako Txatxilipurdi elkarteak eta aisialdiaz gozatzeko aukera ezin hobea izan dute gaztetxoenek. Gaztelu puzgarriak, ludoteka, ziber-txokoa, karaokea, tailerrak, goming-a... izan dira aukeran eta 40 begiraleren laguntzaz ibili dira batzuetan zein besteetan. Gainera, egunero ikuskizunak ere eskaini dituzte Txikilandian: dantza, gimnasia, karatea...

**GARRAIOA** > KARABANAK

# Karabanak kalean uzteko mugak ipini nahi ditu Udalak

Ezingo dira kaleko aparkalekuetan bost egunetik gora aparkatuta utzi karabanak

**I.A.** > ARRASATE

Azken udalbatzarrean adostu zuten herri barruko bideetako erabilera, trafikoa eta segurtasuna arautzen duen ordenantza aldatzea. Hortaz, aurki autokarabanak eta karabanak ezingo dira kaleko aparkalekuetan utzi bost egun baino gehiago.

Onarpen prozesuaren arabera gutxi gorabehera bi hilabete barru ipiniko dute indarrean arau berria. Hala ere, oraindik badago alegazioak aurkezteko aukera.

**BESTELAKO IBILGAILUAK**

Karabanendako eta autokarabanendako ez ezik araua da baita ere motordun ibilgailuetatik banatutako atoiendako, autobusendako, traktoreendako eta baimendutako pisua 3.500 kilotik gora duten ibilgailuendako.

Arau haustetzat hartuko da baldin eta ibilgailuak horretarako espresuki gordetako tokian ez badaude edo baimendutako orduan zamalanetan ez badihardute.

**KEXEI ERANTZUNA**

Kataideko, Markuleteko eta Musakolako industria guneak izendatu zituen 2004an Udalak horrelako ibilgailuak aparkatzeko. Baina hainbat langilek eta bizilagunek kexa azaldu dutenez, hartu dute ordenantza aldatzeko erabakia.




**MUSAKOLA** Industria gunean uzten dituzte karabanak. IMANOL SORIANO

> UDAL ZERBITZUAK

### Garibai Etxeko telefonoak eta Biztanleen Arreta Zerbitzuko ordutegiak aldatu egin dituzte

Udaleko hainbat zerbitzutan urte hasieran aldaketak izan dira. Garibai Etxean telefono zenbakiak aldatu dituzte. Zenbaki berriak hauek dira: Gazteentzako Informazio Bulegoa (943 25 20 65); Sexologia Zerbitzua (943 25 20 66); Faxa (943 25 20 55) eta Udaleko telefonogunea (943 25 20 00). Bestalde, Biztanleen Arreta Zerbitzuak (BAZ) bulegoko ordutegia aldatu du. Honakoa da ordutegi berria, etenik gabekoa izango dena: astelehenetik egubakoitzera 08:30etik 19:00etara; eta zapatuetan 09:30etik 13:30era.

> AISIALDIA

### Hezitzaileak behar dira ludotekan lan egiteko

Arrasateko ludotekan astean barrena lan egiteko hezitzaileak behar ditu Txatxilipurdi aisialdi elkarteak. Lan eskaintzaren gaineko informazio gehiago eskuratu nahi duenak 943 79 54 46 telefono zenbakira deitu edo *haurrak@txatxilipurdi.com* helbide elektronikora idatzi beharko du.

> LEHIAKETA

### Urtarrilaren 24an amaituko da Inauterietako kartel lehiaketako lanak aurkezteko epea

Inauterietako kartela aukeratzeko lehiaketarako lanak urtarrilaren 24ko 15:00ak baino lehen eraman behar dira Biztanleen Arreta Zerbitzura disketean edo Din A3 paperean inprimatua. Egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzeko aldean lema duela aurkeztu behar dira kartelak eta gutunazal itxi batean lema bera eta egilearen datuak adieraziko dira. Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: *2007 Inauteriak Arrasate*. Irabazleak 400 euroko saria jasoko du.



LEHEN FASEA Argiteria eta ur instalazioak lur azpitik sartzeko lanak egingo dituzte, besteak beste. JOSETXO ARANZABAL

**HIRIGINTZA** > IRALAKO URBANIZAZIOA

# Irala kaleko lanei ekingo diete gaur, astelehena

2006ko abenduan hasitako lanak Aretxabaletako Amaral de Sousa enpresak jarraituko ditu gaurtik

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Gaur, astelehena, ekingo diete berriz ere Irala kaleko urbanizazio lanei. 2006ko abenduan hasi zituzten aipatutako lanak, baina eten egin behar izan zituzten iazko apirilean, Ozio enpresak ukoagiria aurkeztu zuelako. Harrezkero, uda ostean berriro atzeratu zituzten, urriaren 7an Kilometroak jaia zetorrelako. Eta azkenik dendariek Gabonen osterako lanak atzeratzea eskatu zuten, Gabonetan behinik behin kalea txukun samar izateko.

**ZAZPI HILABETEKO LANAK**

Aretxabaletako Amaral de Sousa enpresa arduratuko da lanak egiteaz, BEB Arkitektoak enpresak egindako proiektuari jarraituta. Lehen faseko lanak abuzturako amaituta egotea aurreikusten da. Aurrekontua 1.379.220 eurokoa da.

Lehen fase honetan, Usoa tabernako kantoitik Gaspar jatetxera bitartean urbanizazio lanak egingo dituzte. Bigarren fasean Irizar jauregiko loretegian lanak egitea aurreikusten da eta hirugarren fase baterako Usoa eta Euxebio II tabernetako terraza geratuko litzateke.




PEÑA ATHLETIO

## Peña Athleticeko saskia, Julian Zangiturentzat

Gabonetan egindako zozketen artean, Peña Athleticeko saskia Julian Zangituk eraman du (argazkian saria jasotzen Peña Athleticeko Juan Carlos Riveroren eskutik). 6.381 izan zen saritutako zenbakia. Bestalde, Bergarako Artisau Feriako zenbaki sariduna 521 izan zen eta Bergara Kirol Elkarteko zozketan hauek izan genituen zenbaki sarituak: 62.361 (saskia), 61.009 (bidaia) eta 24.603 (Multiopticaseko hainbat opari). Azkenik, BTLS K.E.ren saskia 1.891 zenbakiari egokitu zitzaion.

**OSTALARITZA** > TABERNAK

# Hainbat nobedade herriko taberna historikotan

Irrintzi urtarrilaren amaieran itxiko dute; Zer Nai itxita abenduaren 31tik, arduradun berrien zain

**E.M.** > BERGARA

Bi taberna historikoren itxieraren berri iritsi zaigu egunotan: alde batetik Zer Nai taberna itxi zuten urte bukaerarekin batera, abenduaren 31n. Eta bestetik, Irrintzi taberna urtarrilaren azkenetan itxiko duela jakinarazi digu Moises Etxanizek. 17 urte eman ditu Irrintzin lanean Moises Etxanizek, azken 12 urteak bertako arduradun moduan. 1971ko maiatzaren 17an zabaldu zuen Pedro Andrinuak Irrintzi taberna Irala kalean eta zalantzarik gabe erreferenteetako bat izan da ordutik. Irrintzi zabaldu zuten urte berean Maxim´s zabaldu zuten, 1971ko irailean.

Zer Nai tabernari dagokionez, 1975eko martxoan zabaldu zuen Jesus Iñarrak. Azken lau urteotan Naroa Estevez lazkaotarra ibili da tabernan lanean, baina Zumarragako Ospitalean lana topatu du eta taberna uztea erabaki du Naroa Estevezek. Hala ere, Iñarraren arabera, hainbat lagun daude tabernarekin interesatuta.

**KIROLDEGIKO TABERNA**

Hauek ez dira nobedade bakarrak. Kiroldegiko tabernan 19 urte egin ostean, Jabier Roigek eta Edurne Peñak martxoan utziko dute. Udalak lehiaketara aterako du taberna. Matxiategiko Kayak ere itxi berri dute, baina Daniel Encabok irekiko du berriro, otsailean.



IRRINTZI 1971ko maiatzean zabaldu zuten Iralako taberna. JOSETXO ARANZABAL

> HAUR PARKEA

### Gabonetako haur parkean sortutako arazoengatik barkamenak eskatu ditu Kultura batzordeak

Udaleko Kultura zerbitzuak barkamenak eskatu nahi ditu Gabonetako haur parkean sortutako eragozpenengatik: "Labegaraietan berogailua egongo zela jakinarazi genuen, baina arazo teknikoak medio hiru egunetatik bakarrean egon zen martxan, ostiralean. Beraz, arazoengatik barkamenak eskatu nahi ditugu".

> UDALA

### Udaleko Euskara Batzordeak kaleratutako egutegiak Udaltzaingoan eskuragarri dira

Udaleko Euskara batzordeak 2008ko egutegiak kaleratu ditu: hormarako egutegi handia eta eskura edukitzeko txikia. Egutegiok herri osoan banatuko dituzte. Etxe, komertzio eta taberna guztietara bidaltzeko ahalegina egingo du batzordeak, baita baserri auzoetara ere. Jaso ez dutenek Udaltzaingora jo dezakete.

**ZERBITZUAK** > AUTOBUSA

# Arantzazurako autobus zerbitzua 10 zentimo garestiagoa da, atzotik

Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzua 2008ko domeka eta jai egun guztietan egongo da martxan



**AUTOBUSA** Argazkian, autobusa Olara auzoan. GOIENKARIA

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Urte berriarekin prezio berria izango du Oñati eta Arantzazu lotzen dituen autobus zerbitzuak. Hala, 2008ko tarifa berria atzo bertan sartu zen indarrean. Hortaz, hemendik aurrera, Arantzazuko autobusa erabiltzearren 60 zentimo ordaindu beharko da.

**AUTOBUSAK ORDU ERDIRO**

Oñati eta Arantzazu lotzen dituen zerbitzuak ez du etenik izango urte osoan zehar; hortaz, domeka eta jai egun guztietan egongo da erabilgarri.

Goizeko lehenengo autobusa Oñatitik irtengo da 7:30ean. Hala, ordu erdiro autobus bat pasako da herriko hiru geltokietatik: Olaratik, Euskadi Etorbidetik eta Postetxetik. Halaber, Oñatitik Arantzazura igotzeko azkeneko autobusa 19:30ean irtengo da. Aldiz, Arantzazutik herrira jaisteko lehen zerbitzua goizeko zortzietan izango da, eta azkena, 20:00etan. Arantzazun, autobusa, Gandiaga Topagunearen ondoan geldit077uko da.

**ZERBITZUA, 2006TIK**

Oñati eta Arantzazu lotzen dituen autobus zerbitzua 2006ko apirilean jarri zen martxan. Orduan apiriletik azarora egon zen erabilgarri, eta tarte hartan 8.025 lagunek erabili zuten. Zerbitzuak izandako arrakasta ikusirik, Udalak, zerbitzua azaroan eta abenduan mantentzea erabaki zuen iaz. Oñatiko Garapen eta Turismo Ajentziak emandako datuen arabera, 2007an, azaroko eta abenduko datuak kontutan hartu barik, guztira, 7.098 lagunek erabili dute Oñati eta Arantzazu lotzen dituen zerbitzua.



**INSTITUTUA** Argazkian, Zuazola-Larraña institutua. GOIENKARIA

**LANAK** > ZUZOLA-LARRAÑA INSTITUTOA

## Eguenean hasiko dituzte frontoia eraberritzeko lanak

Zuazola-Larraña Institutuko lanak hiru hilabeteko epean egitea aurreikusten da

M.B. > OÑATI

San Lorentzo auzoko Larraña Institutuko pilotalekua eraberritzeko lanak, egunean, urtarrilaren 10ean hasiko dira. Halaber, lanok egiteko ardura Hezkuntza sailarena da; hala, 200.000 eurotik gorako partida jarriko du eraberritzea ordaintzeko.

Hasierako epea betetzen badira, lanok apirilerako bukatuta egotea aurreikusten da.

**TEILATUA ETA ALDAGELAK**

Zuazola-Larraña Institutuko frontoian hainbat lan egingo dira. Alde batetik, frontoia bera konponduko da: uralitazko sabaian dauden zuloak, teilatua, lurra eta paretak eraberrituko dira.

Beste alde batetik, aldagela berriak egingo dira, eta frontoiko sarrera ezintasun fisikoak dituzten pertsonendako egokituko da.

Halaber, pilotalekua eraberritu ostean, kanpoko instalazioak txukundu eta berritzea faltako da, besteak beste, hango futbol zelaia.

Institutuko frontoia eraberritzen duten artean, erabiltzaileendako itxita egongo da.

## 2007ko herriko kirolari onenak saritu zituzten

Abenduaren 28an banatu ziren 2007ko Kirol Sariak udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Hala, Gaztedia eta Kirol batzordearen erabakiz bederatzi sari banatu ziren. Banakako kirolerako atalean sari jaso zuten; Ander Zarketa eta Aitziber Iglesias igerilariek; Ainhoa Ugarte atletak; Jon Anduaga golf jokalariak; Jon Agirre, Euskadiko boulder liga irabazteagatik; eta, mendiko eskia egiten duen Arkaitz Letamendik.

Halaber, taldekako sariak, futboleko gazte mailako taldeak, eta, eskubaloiko kadete mailako neskek jaso zituzten. 1978. urtean hasi eta 29 urte eskubaloiko entrenatzaile modura egin duen lanagatik, Iñaki Canterok sari berezia jaso zuen.

Sari banaketa hasi aurretik herriko kirolaren osasuna ona dela erakusteko bideo bat eskaini zuten, eta, ondoren, luntxa egon zen bertaratu zirenendako.



MIREIA BIKUÑA

**ARETXABALETA** > BASAGOITI BIADUKTUA

# Basagoiti biaduktua egiteko lanak astiro doaz

## Untzillarako bidean bi muturrak batuko ditu Basagoiti biaduktuak; ekainean bukatuko dute

**IKER BARANDIARAN** > ARETXABALETA

Batek baino gehiagok ikusiko zuen aspaldian Aretxabaletatik Untzillara bidean lanak egiten dabiltzala, eta horren erruz tarteka bidea moztuta egoten dela. Are gehiago, errepide baten alboan biaduktuaren pieza batzuk ikus daitezke.

Puntu horretan egiten dabiltzana da Eibar-Gasteiz autobiderako biaduktu bat, Basagoiti biaduktua deituko dena, hain zuzen ere. Biaduktu horrek 12.400.000 euroko aurrekontua izango duela aurreikusi dute; eta lanek izango duten zailtasunen ondorioz ekainera arte luza daitezke.

Lan horren berezitasun nagusienak dira biaduktuari eutsiko dieten zutabeek V-aren forma izango dutela; hala, zutabe horiek inklinatuta egongo dira. Horrekin begi-inpaktua ekidin gura izan dute.

Biaduktuak bi galtzada izango ditu; eta gutxi gorabehera 420 metrotako luzera izango du. Altuerari dagokionez, berriz, gehienezko puntuan 45 metrotakoa izango dela aurreikusi dute.



**BIADUKTUAREN LANAK** Aretxabaletatik Untzillara bidean egiten dabiltza biaduktua jartzeko lanak. JOSETXO ARANTZABAL



**ZARE** Jantzi dendaren erakusleihoak jaso du lehenengo saria. LARRAITZ ZEBERIO

**ARETXABALETA** > ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

# Zare jantzi dendak egindako erakusleihoa saritu dute

## Iaz bezala, Imanol Harategiak jaso du bigarren saria eta Kimua loradendak hirugarrena

**A.G.** > ARETXABALETA

Aretxabaletako erakusleihoen lehiaketak badítu irabazleak. Santakurtz kaleko Zare jantzi dendak jaso du lehenengo saria. Erakusleiho handia du Zarek eta ederki atondu dute aurten. Kolore berdea oinarri hartuta Olentzero jarri dute lastozko muino baten gainean. Gainerako osagaiak dendan salgai dituzten eskularru, poltsa, jertse, beroki eta abar izanik. Gustu oneko konposizioa, guztia.

**LEHIAKETAKO KLASIKOAK**

Bigarren saria, Gorbeia kaleko Imanol Harategira joan da. Ez da lehenengo aldia komertzio honek halako saria jasotzen duela. Iaz ere erakusleiho lehiaketako bigarren saria eskuratu zuen. Zare dendaren antzera, erakusleiho handia du Imanol harategiak eta askotariko animaliekin apaindu dute Gabonetan. Negua eta udazkena dira protagonista bertan eta animaliekin osatu dute konposizioa. Oilarrak, oiloak, ardi bat, ahatea, hontza eta urtxintxa ikus daitezke, besteak beste.

Hirugarren saria, iaz bezala, Araba ibilbideko Kimuak lora dendak jaso du. Dotore jarri dute aurten ere. Merezitako saria, beraz.

**ESKORIATZA** > IKERKETA BATZORDEA OSATU DUTE

# Ustezko kontratazio irregulartasunak aztertzeko, batzordea

## Ikerketa batzordea abian jarriko dute berehala, fakturen gaia argitzeko

## Udalak eta Fonortek ika-mika dute Dorletako lanen kostua dela-eta

**I.B.** > ESKORIATZA

Orain dela hilabete inguru, San Juan kaleko lanen gaineko aurreko agintaldiko faktura batzuk heldu ziren udaletxera. Gaur egungo udalbatzaren iritzia da ustezko kontratazio irregulartasunak egin zituztela. Eta hori hobeto aztertzeko, ikerketarako batzordea sortu dute.

Joan den abenduaren 26an, Eskoriatzako udalbatzak aho batez onartu zuen ikerketarako batzordea osatzea. Gaur, astelehena, egingo duten Hirigintza batzordean erabakiko dute Ikerketa batzordea noiz egingo duten, eta zein izango den batzorde horretako lehendakaria.

Dagoeneko, behintzat, erabaki dute zein zinegotzik osatuko duten batzorde hori. Honako hauek izango dira: Ander Agiriano (EAE-ANV), Aitor Urrutia (EAJ), Juan Luis Merino (EB-Berdeak), Iñaki Pierruges (PSE-EE) eta Leire Okarantza (Elizateak).

**PROIEKTUAK BALDINTZATUTA**

Pedro Lasagabaster alkateak nabarmendu zuen ustezko irregulartasun horien erruz Udaleko hainbat langile eta zinegotzik lan handia egin behar izaten dabiltzala; are gehiago, salatu zuen arazo horrek 2008ko udal aurrekontuak, eta hainbat proiektu baldintzatu dituela.

EAJko Aitor Urrutiak, bere aldetik, azpimarratu gura izan zuen ikertzeko beste hainbat gai daudela, baina ikerketa batzordea sortzearen aldeko bozka emango zutela. Bestalde, eskatu zuen Frixi eraikuntza enpresaren gaineko irregulartasun usteak publikoki argitu eta ezabatzeko.

**FONORTEK AUZIA IREKI DU**

Bestalde, udaleko osoko bilkuran Pedro Lasagabaster alkateak jakinarazi zuen Dorleta auzoko berrurbanizazioarekin lotuta ere hainbat arazo izan direla.

Hala, Udaleko obren zuzendaritza eta lanen ardura duen Fonorte enpresa ez datoz bat auzo horretako lanen kostuari dagokionez. Fonortek aurkeztutako fakturetan Udalak esleitutako kopurua baino %46 altuagoa da kostua.

Udala oso kezkatuta dago ezuste horrekin eta ondo argitu gura du igoera horren zergatia. Fonorte enpresak, berriz, auziprozesua ireki du Udalaren kontra faktura horien ondorioz. Udalak Ogasun batzordean eta osoko bilkuran aztertuko du hori.

**ARETXABALETA**

# Kultura etxeko altzariak bidean

**I.B.** > ARETXABALETA

Udalaren asmoa da Aretxabaletako erabilera anitzeko eraikin berria, kultura etxea, udaberrian inauguratzea.

Hori hala izan dadin, hainbat lan egiten dabiltza, eta horien artean eraikin horretako hainbat zerbitzu altzariz hornitu gura dituzte.

Eguenean, hilaren 10ean, bukatuko da altzarien eskaintzak jasotzeko epea. Hala, hilaren 14an Udaleko arduradunak batzartu eta eskaintzak zabalduko dituzte. Hortaz, altzarien erosketa urtarrila bukaera aldera esleituko dutela uste dute.

Altzari horiek zine aretoan, kultura etxean eta gela zehatz batzuetan jartzeko erosiko dituzte.




**JOLASEAN** Bi txoperrak eta puzgarriak arrakasta handia izan zuten nerabeen artean. L.Z.

**ELGETA** > GAZTELU PUZGARRIAK ETA TXOPERRAK IZAN ZUTEN ARRAKASTA GEHIEN

# Jolasparkeak 70 bat ume hartu ditu aurten Elgetan

Udalak balorazio oso positiboa egin du, besteak beste nerabeen parte hartzea handia izan delako

**LARRAITZ ZEBERIO**> ELGETA

Gustura ibili ziren jolasean hilaren 4an Elgetako gaztetxoak. Udalak frontoian ipinitako Gabonetako jolasparkean bost jolas izan zituzten aukeran eta 70 bat ume hurbildu zen. "Balorazio positiboa egiten dugu", adierazi du Rebeka Ubera zinegotziak. "Umeek aukeratu dituzte aurten jolasak eta ikusi da harrera hobea izan dutela, gehienbat 12-16 urte bitartekoen artean". Giza-futbolinak, rokodromo puzgarriak, gaztelu puzgarriak, txoperrak eta ohe elastikoak osatu dute aurten parkea. Zezen mekanikoak kale egin du, izan ere apurtu egin zen eta ordez puzgarri rokodromoa ekarri zuten. "Esperientzia ikusita, hurrengo urtean ere umeek aukeratuko dituzte jolasak", esan du Uberak.

**GABONETAKO PILOTA TXAPELKETA**

Oso giro polita izan da, halaber, Gabonetako Pilota Txapelketan. Oinatz Bengoetxeak, Aitor Mendizabalek eta Jaunarenak egin zuten sari banaketa eta asko banatu zituzten.

Bakoitzak bere kategorian, finalak irabazi zituzten Egoitz Mañarikuak, Ainhoa Zeziagak, Etor Zubiaurrek, Maitena Mañarikuak eta Iñaki Olaortuak. Azken honek, gainera, Ozkarbi Pilota Elkartearen eskutik urteko pilotariaren saria jaso zuen.

## Antzuolan 50 fruta arbola landatu dituzte

Abenduaren 22an 50 zuhaitz landatu zituzten San Josepe auzoan, errekaren kontra dagoen zelaian. Udaleko Nekazaritza batzordearen ekimenez egin zuten arbola landatzea eta 25 lagunek hartu zuten parte auzolanean; Udaleko arduradunek eta eskolako neska-mutikoek, hain zuzen ere. Fruitu arbolak ziren denak: gereziondoak, sagarrondoak, okaran arbolak, melokotoi arbolak eta mizpirondoak. Honela, behin zuhaitzak San Josepen sartuta, inguru horretako lanak amaitu zituzten.



GOIENKARIA

**ARAMAIO** > BERTSOLARITZA

# Egubakoitzean egin zuten Gabonetako saioa

Aramaio bertako Andere Arriolabengoak eta beste hiru bertsolarik jardun zuten kantuan kultura etxean

**GOIATZ ARANA**> ARAMAIO

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Gabonetako bertso saioa egin zuten egubakoitzean kultura etxean. Aramaioko Bertso Eskolak antolatu zuen saioa, Udalak lagunduta.

Andere Arriolabengoa, Jexux Mari Irazu, Iker Zubeldia eta Jon Martinek egin zuten bertsotan, Manex Agirrek jarritako gaiak ahotan hartuta. Kontu alaiak eta serioak, denetarikoak izan zituzten hizpide eta, saio orekatua izan zen emaitza. "Orekatua eta sinpatikoa", Lierni Altuna Aramaioko Bertso Eskolako kidearen hitzetan, kultura etxera hurbildutako 30-40 lagunak gustura uzteko modukoa. Entzundakoek bera behintzat ase zutela kontatu dio Altunak ASTELEHENEKO GOIENKARIAri.

**NORK BERE HERRIAZ**

Lau bertsolariak batera jarri zituzten kantuan hasieran, eta nork bere herriari buruzko bertsoak bota zituen: Aramaio, Larraul, Zegama eta Oiartzuni buruz jardun zuten, hurrenez hurren, Arriolabengoa, Irazu, Zubeldia eta Martinek.

Bertso saioari bukaera emateko puntuka jardun zuten, ikus-entzuleen algara eraginez. Izan ere, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean Jon Martinek egin zuen moduan, errima ezberdinetako habanera doinuarekin ausartu ziren bertsolariak egubakoitzeko saioan eta nahikoa lan eman zien horrek, nahi bai baina asmatu ezinda. Tartean trabatuta ere, animatu egin zituzten bertsozaleak, ordea, desengainatzetik urrun.

**LEINTZ GATZAGA** > INSTALAZIO LANAK

# Gasa eta ura sartzeko lanen bigarren fasea

Udaleko osoko bilkuran erabaki zuten gasa eta ura sartzeko lanen bigarren fasea Aikia enpresari esleitzea

**IKER BARANDIARAN**> LEINTZ GATZAGA

Urtea bukatu aurretik hainbat erabaki hartu zituzten udaleko osoko bilkuran. Horietako bat gasaren eta saneamenduaren gainekoa izan zen. Hala, gasa, ura eta saneamenduak ipintzeko bigarren fasea abian jartzea onartu zuten osoko bilkuran.

Lehenengo fasean herriaren erdia, San Inazioren ezkerraldea, egin zuten. Orain, berriz, eskuma aldea egin beharko dute.

**AIKIAK EGIN BEHARREKO LANA**

Udalak Aikia enpresari adjudikatu zizkion instalazio horiek egiteko lanak. Horretarako sei hilabeteko epea izango du Aikiak, eta bigarren fase horren aurrekontua 291.000 euro da, hain zuzen ere.

**LAN BATZUK BUKATZEAR**

Udaletik jakinarazi digute bigarren fasea egin ostean Rosario kaleko etxe batzuetara instalazioa egitea faltako dela. Hala ere, aurretik, bigarren fasea egin beharko dute. Lan horiek hasi aurretik, baina, komeni da hotz handirik ez egitea edo behintzat izotza ez izatea, lanak egiterakoan oztoporik ez izateko.

**UDAL ERAIKINEN GARBIKETA**

Bestalde, bilkuran hartutako beste erabaki bat izan zen udal eraikinen garbiketa Hemen enpresari esleitzea. Aurretik Garbitu enpresa ibili zen horretan, baina Udalak Hemen enpresa aukeratu du. Bi urtetarako kontratua egin dute eta luzatzeko aukera dago. Udaletxea, kultura etxea eta eskola garbitu beharko dituzte. Horretarako, urtean 13.900 euro ordainduko dizkiote.



> FUTBOLA
Mondrak 2-0 irabazi zion Zestoari zapatuan Mojategin > 16



> ZIKLISMOA
Jone Muxika, Euskadiko ziklo kros txapelduna > 19



> SASKIBALOIA
Ainhoa Lazkanori omenaldi hunkigarria egin zioten > 21



> ELKARRIZKETA
Iñaki Badiola Realeko presidente berriarekin solasean > 22



**PARTE HARTZAILEAK** Abenduaren 29an eta 30ean Labegaraieta kiroldegian elkartu ziren patin zaleak. AMAIA LABAIEN

**PATINAJEA** > HANKA LABANKA

# Patinatzeko aukera eskaintzea da Hanka Labankaren nahia

**ELKARTEA**
Hanka Labanka elkartea 2006an sortu zuten; gaur, 18 lagun dira elkartean

**EGUBAKOITZETAN**
Astero elkartzen dira, egubakoitzetan, 15:30etatik 17:00etara Labegaraietan

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Patinatzeko ohitura gero eta zabalduago dago gurean; hala, patinatzea gustuko dutenek aukera paregabea izan dute Gabonetan. Bergarako Hanka Labanka elkarteak antolatuta, ate irekiak jardunaldiak egin zituzten abenduaren 29an eta 30ean, Labegaraieta kiroldegian. Aurreikuspen barik antolatu zuten jardunaldia elkarteko kideek; eta, Remi Arantzabal elkarteko presidenteak esan digunez, jardunaldion arrakasta izugarria izan zen.

**ADIN GUZTIETAKO LAGUNAK**

"Bi saioetan 85 pertsona inguru elkartu gara; arrakasta handia izan dute jardunaldiok. Parte hartzaileen aldetik erantzuna oso ona izan da eta zorionak besterik ez ditugu jaso", azaldu digu Remi Arantzabalek.

Hanka Labanka gurean dagoen patinaje elkarte bakarra da: "Beste herri batzuetan interesa badago, baina guk dakigunez, Bergarakoa da elkarte bakarra". 2006an sortu zen elkartea; gaur egun 18 kide dira eta egubakoitz guztietan batzen dira Labegaraietan (15:30etatik 17:00etara). Baina, lanean daudenentzat ordu txarra da eta ordu gehiago izatea gustatuko litzaieke.

Elkartearen helburua patinatzeaz gozatzeko aukera ematea da eta bestetik, patinatzeko grina zabaltzea. "Zaila da adin batetik aurrera patinak hartu eta kalera ateratzea; taldean patinatzea samurragoa da eta, elkarteak aukera hori ematen du", azaldu du Arantzabalek.

**PATINATZEKO LEKU EGOKIAK**

Gurean, patinatzeko leku egoki gutxi daude; Urkulu da leku horietako bat. "Bide gorriak ere badaude, baina horiek, izatez, bizikletarekin ibiltzeko tokiak dira", azaldu du Arantzabalek.

Elkartea sortzeak, kiroldegia erabiltzeko aukera eman die Bergarako patin zaleei. "Udalaren jarrera eskertu gura dugu. Alde batetik, kiroldegia erabiltzeko aukera eman digu Udalak; eta, bestetik, ate irekiak jardunaldiak antolatzeko beharrezkoa zen guztia utzi digu", gaineratu du.

ZER DA BEHARREZKOA PATINATZEKO?

## Edozein adin da ona patinatzen hasteko

Ez dago adin konkreturik patinatzen hasteko; hala ere, kirol guztietan bezala, gero eta lehenago hasi hobe izango da. Patinatzen hasteko, beldurrik ez izatea da beharrezkoa. Gainera, material egokia izatea ere premiazkoa da: batetik, funtsezkoak dira patinak. Babes neurriak hartzea baita: eskumuturra, ukondoa eta belaunak babestu behar dira. Era berean, kaskoa komenigarria da: "Ez da derrigorrezkoa kasko erabiltzea, baina, nik gomendatu egiten dut", dio Remin Arantzabalek. Lehenengo ikasi behar dena, postura ona hartzea da: "Modu horretan, jausi ezkero ere mina txikiagoa izango da". Gainera, jausteko beldurrik ez izatea beharrezkoa da: "Gero eta gehiago jausi, gero eta hobeto ikasiko dugu patinatzen", azaldu digu Hanka Labankako Arantzabalek.

**PREFERENTE MAILA** > MONDRAK 2-0 IRABAZI ZION ZESTOARI

# Aukera asko eta gol bi besterik ez Mojategin zapatuan

## Mondrak bere zaleei gol asko oparitzeko aukera galdu zuen; Muruak eta Lopezek egin zituzten golak



**ERASOAN** Arrasatearrak bigarren zatian erraz nagusitu ziren. JOSETXO ARANTZABAL

MONDRAGON
**2-0**
ZESTOA

**Mondragon** > Mikel, Andoni, Goiti, Laspiur, Arazkonaga, Ruben, Keixi, Julen, Jon Murua (Luna, 75. min.), Ekain (Alzola, 70. min.), eta Iker Lopez (Arkaitz, 12. min.).

**Zestoa** > Hector, Jon, Aimar, Imanol (Aritz, 45. min.), Ander, Zubielki, Gorka (Xabier, 86. min.), Jagoba, Igor, Narayan (Aimar, 45.min.) eta Iñaki.

**Bestelakoak** > Ikusle dezente Mojategin. Haize bortitza eta euria partiduko zenbait momentutan. Epaileak ez zuen arazorik izan; Zestoako lau jokalariri txartel horia atera zien.

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Mondrak 2-0 irabazi zion zapatuan Zestoari, baina etxekoek tarte handiagoz irabazteko aukera mordoa galdu zituzten. Berehala gauzak alde jarri zitzaizkion Igor Gordobilen taldeari; hirugarren minutuan egin zuen Jon Muruak lehenbiziko gola. Mojategira berandu iritsi zen ikusle bat baino gehiago gola ikusteke geratu zen. Aipatutako jokaldian zestoarrei gaizki atera zitzaien arrasatearrak jokoz kanpoko posizioan uzteko ahalegina eta Muruak gol ederra egin zuen.

Hortik aurrera, sailkapeneko behealdean dagoen Zestoak aurrera egin zuen berdinketaren bila, batez ere ezker hegalean aritu zen Narayan jokalariaren bitartez. Gauza politak egin zituen Narayanek. Baina min hartuta, bigarren zatian aldagelan geratu zen eta hortxe amaitu zen zestoarren arriskua.

**MONDRA NAGUSI**

Lehen zatiaren amaieran Muruak gutxigatik ez zuen lortu bigarren gola; baloia atezainaren gainetik loratu zuen, baina ez zen sareetara iritsi. Mondra jaun eta jabe izan zen jarraipenean.

Behin eta berriz iritsi ziren bisitarien area ingurura, baina batzutan Hector atezainaren lan onagatik eta bestetan etxekoen punteria faltagatik ez zen lasaitasunaren gola iristen. Hala ere, Mojategiko zaleek ez zuten larregi sufritu, Iker Lopezek 60. minutuan bigarren gola egin eta gero. Korner jaurtiketa baten ondorioz, ezkerkada bikain batez errematatu zuen Lopezek area txikiaren ingurutik. Aurreko errematean gola eskatzen ari ziren Mondrako jokalariak eta zaleak, baina Lopezen zartakoak argi eta garbi gainditu zuen gol marra.

Ez zen partiduko jokaldi eztabaidagarri bakarra izan: handik bost minutura penaltia eskatu zuten zestoarrek Iñakiri egindako falta bategatik, eta hala zirudien. Baina epaileak ez zuen hori ikusi, eta txartel horia atera zion Zestoako aurrelariari ustez bere burua lurrera botatzearren.

Esan bezala, zaleei gol asko oparitzeko aukera paregabea galdu zuen Mondrak: Murua, Julen eta Andoniren hanketan izan zituzten aukerarik onenak. Azken 15 minututan atera zen Lunak ere gauza politak egin zituen, eta gol ederra lortzeko zorian egon zen. Urrunetik egindako jaurtiketa langa gainetik atera zen. *Uiiii...*

**PREFERENTE MAILA** > UDA-REAL UNION

# Igor Arenaza: "Nahi eta ezin ibili gara norgehiagokan"

ARETXABALETA
**1-2**
REAL UNION



**ERASOAN** UDAko jokalari Ibon Gonzalez Irungo jokalari baten aurrean. J.ARANZABAL

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARETXABALETA

"Nahi eta ezin ibili gara norgehiagokan", esan zuen Igor Arenaza entrenatzaileak partidua amaituta. "Real Union txapelketako liderra da eta talde landua da".

Aretxabaletakoek haserre amaitu zuten partidua. Irundarrak bi gol egin ostean (30. eta 55. min.) jokalari bat gutxiagorekin gelditu ziren (65. min) eta etxekoek laster estreinatu zuten markagailua. Juan Lopezek egin zuen gola etxekoendako 75. minutuan. Asko ospatu zuten gola Ibarran eta itxaropen handia piztu zuen, baina UDAk ez zuen berdinketa lortzerik izan.

**NAHI ETA EZIN**

Bat gutxiago izanda, irundarrak defentsan jarri zuten euren ahalegina. Etxekoek presio handia eragin zuten eta gol aukerak ere sortu zituzten. Denbora baina aurrera zihoan eta epaileak adierazitako txartel ugariek urduritasuna eragin zuten jokalariengan.

UDAk baja ugari ditu eta hori ez nabaritzea zaila da. Irundarrek eraman zituzten jokoan zeuden hiru puntuak, baina ez merezimendu askorekin. Norgehiagoka nahiko berdindua izan zen eta epailearen lana eskasa.

> TOURING-ALOÑA

### Hutsekoarekin amaitu beharreko partidua, Touringek eraman zuen (1-0)

Zapatu arratsaldean Errenteriako Fanderia futbol zelaira hurbildutako zaleek ez zuten jokalariek eskainitako ikuskizunarekin gozatzerik izan. 90 minututan batzuek zein besteek oso gutxitan asmatu zuten baloia atera zuzentzen eta, gauzak horrela, partiduko gol bakarra Aloñakoen huts baten ondorioz etorri zen: zelai erdian baloia galdu, Touringekoek kontraerasoa egin eta baloia areara erdiratu ostean, Aratzek bere atean sartu zuen baloia. Lehen zatian, 35. minutuan etorri zen etxekoei garaipena eman zien gola.

Aloñak ez zuen berdintzeko aukerarik izan. Hainbat baja izan arren, irudi eskasa azaldu zuen Aloñak sailkapeneko behealdean dagoen Touringen aurka. Ondarroan jokatuko dute oñatiarrek hurrengo jardunaldian.

**LEHENENGO ERREGIONALA** > ANTZUOLA-MARTUTENE

# Joko ona egin zuen Antzuolak Martuteneren aurkako partiduan

Lehenengo zatia nahiko berdindua izan zen, bigarrengoan gainetik ibili ziren Antzuolakoak

Maila mantentzea zen Antzuolaren hasierako helburua eta laster eskuratuko dituzte beharrezko puntuak




**DEFENTSAN FIN** Atea defendatzen ere lan ona egin zuten Antzuolakoek. JOSETXO ARANTZABAL

**LARRAITZ ZEBERIO** > ANTZUOLA

Zorte oneko boladan daude Antzuolako jokalariak. Zorte ona edo lan fina entrenamenduetan. Kontuak kontu, Andoni Azkargortaren mutilek garaipena eskuratu dute asteburu honetan jokatutako norgehiagokan ere.

Martutene hartu zuten Estalan zapatuan eta 3-0ko emaitza lortu zuten debagoiendarrek. "Lehenengo zatia nahiko berdindua izan zen eta bi taldeek sortu zituzten gol aukerak. Bigarrenean, nire ustez, hobeto aritu ginen. Zazpi bat aldiz iritsi ginen Martutenekoen ate aurrera". Azkargortaren hitzak dira. Mutilek egindako lanarekin pozik dagoela adierazi du.

**ANTZUOLAK HIRU GOL**

Lehenengo zati amaieran egin zuten Antzuolakoek aurreneko tantoa. Mikel Idiakezek egin zuen. Bigarrena Luis Francok sartu zuen buruz korner jokaldi batean. Azkena, 91. minutuan egin zuten etxekoek. Iker Cabrerak egin zuen area kanpotik baloia zuzenean atera bidalita.

"Denboraldi hasierako helburua maila mantentzea zen eta lortuko dugulakoan nago", esan du Azkargortak. "Bost-sei puntu behar ditugu oraindik baina eskura ditugula pentsatzen dut. Momentu onean gaude eta hemendik aurrera partiduz partidu joango gara. Gora begiratzeke disfrutatzea tokatzen zaigula uste dut".

Antzuola sailkapeneko hirugarren postuan aurkitzen da orain, bigarren dagoen Oiartzun taldearekin puntutan berdinduta.

**EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA**



JOSETXO ARANZABAL

## Penaltiz sartu zuen berdinketaren gola BTLS-ko Oihana Iñurrategik

Berdinketarekin amaitu zen zapatuan Bergarako BTLS taldeak eta Hernanik jokatutako partidua. Kanpotarrak jarri ziren aurretik 20. minutuan urrundik jaurtitako baloia Bergarako atezainaren buru gainetik pasa zenean. Atsedenaldira joan aurretik berdindu zuten bergararrek. Penaltiz egin zuen gola Oihana Iñurrategik. Baja asko ditu taldeak eta Jose Luis Beitia entrenatzailearen esanetan pozik dago neskek zapatuan egindako lanarekin. "Ea urtarril amaierara arte eusten diogun, orduan osatuko baitugu atzera taldea".

> 1. ERREGIONALA

## Joko ona egin arren gauzatzerik ez eta berdindu egin dute bergararrek Orion

Manu Diazen mutilek berdindu egin zuten zapatuan Orion jokatutako partidua.

Etxekoek baino joko hobeagoa egin zuten bergararrek, eta 30. minutuan etorri zen emaitza. Ondo landutako jokaldi baten ostean Imanol Cabanillasek egin zuen gola. Berdinketa ere, baina, iritsi zen. Lehenengo zatiko azken minutuan lortu zuen Oriokok korner jokaldi baten bidez.

Bigarren zatian bergararrek gol aukerak sortu zituzten, baina ez zuten gauzatzerik izan. 15 minuturen faltan, gainera, jokalari bat gutxiagorekin gelditu ziren. Aitor Elorriaga kaleratua izan zen bi txartel jasotzeagatik. "Joko ona egiten dugu, baina ez dugu gola egiterakoan asmatzen", esan du entrenatzaileak.

**emaitzak eta sailkapenak**

**PREFERENTE MAILA**

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. Real Union | 37 | 17 |
| 2. Ordizia | 32 | 17 |
| 3. Trintxerpe | 31 | 17 |
| 4. Berio | 28 | 17 |
| 5. Aurrera Ondarroa | 27 | 17 |
| 6. Hernani | 25 | 17 |
| 7. Mondra | 25 | 17 |
| 8. Euskalduna | 25 | 17 |
| 9. Aloña Mendi | 23 | 17 |
| 10. EHU Vasconia | 22 | 17 |
| 11. Aretxabaleta | 22 | 17 |
| 12. Idiazabal | 21 | 17 |
| 13. Anaitasuna | 21 | 17 |
| 14. Hondarribia | 20 | 17 |
| 15. Zumaiako | 18 | 17 |
| 16. Zestoa | 16 | 17 |
| 17. Eibartarrak | 14 | 17 |
| 18. Touring | 13 | 17 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Hernani-Anaitasuna | 4-0 |
| Trintxerpe-Idiazabal | 1-2 |
| Mondra-Zestoa | 2-0 |
| Touring-Aloña Mendi | 1-0 |
| Aurrera-Vasconia | 2-2 |
| UDA-Real Union | 1-2 |
| Euskalduna-Hondarribia | 1-1 |
| Ordizia-Berio | 2-3 |
| Eibartarrak-Zumaiako | 2-0 |

**Hurrengoak**

Hernani-Eibartarrak
Berio-Zumaiako
Ordizia-Hondarribia
Euskalduna-Real Union
UDA-Vasconia
Aurrera-Aloña Mendi
Touring-Zestoa
Mondra-Idiazabal
Trintxerpe-Anaitasuna

**BESTELAKOAK**

**LEHENENGO ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| Antzuola-Martutene | 3-0 |
| Orioko-Bergara | 1-1 |

**BIGARREN ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| Anaitasuna-Mondra | 1-1 |
| BTLS-Ikasberri | 4-0 |
| Eibartarrak-UDA | 1-5 |
| Zestoa B-Elgeta | 1-3 |

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| UDA-Vasconia | 3-0 |
| Bergara-Zumaiako | 0-0 |

**OHOREZKO GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Martutene-Aloña Mendi | 0-3 |
| Mondra-Sto. Tomas Lizeoa | 7-2 |

**LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| UDA B Arizmendi- Ilintxa | 1-2 |

**OHOREZKO KADETEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Añorga | 1-3 |
| Hernani-Bergara | 1-0 |

**LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Zarautz-Arrasate | 1-2 |
| Lagun Onak-UDA B | 4-1 |

**OHOREZKO INFANTILAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Eibar-UDA Arizmendi | 7-0 |
| Real Sociedad-Bergara | 11-0 |

**OHOREZKO INFANTILAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Real Union | 2-1 |

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| BTLS-Hernani | 1-1 |

**ANTZUOLA** > DV TXAPELKETA

# Mendizabalen denboraldi borobila, bi txapelketa garrantzitsu irabazita

Elgetan 4 t´erdiko txapeldun izan ondoren, pasa den abenduaren 23an, DV txapelketa irabazi zuen Zarautzen, Jauregi atzelariarekin batera

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Aurten Elgetako lau t´erdiko finala irabazi ondoren gutxik uste zuten Mendizabalek DV txapelketa garrantzitsua irabazi zezakeenik, baina halaxe izan zen. Soraluzeko Jauregi atzelaria lagun zuela, 22 eta 16 irabazi zieten Renobales eta Garmendiari, abenduaren 23an Zarautzeko Aritzbatalde pilotalekuan jokatutako finalean.




**AITOR MENDIZABAL** Denboraldi bikaina burutu du Mendizabal antzuolarrak amaitu berri den 2007an. GOIENKARIA

**LANEAN JARRAITU**

Aitor Mendizabalek 18 urte besterik ez dituen arren, beragan konfidantza ipini zutenek poz ikaragarria eraman zuten Antzuolako aurrelariak lortutakoarekin. Bi txapelketa garrantzitsuak irabazi ondoren, Mendizabal pozik dago egindako lanarekin. Oraindik ez du inongo pilota enpresaren deirik jaso, eta hemendik aurrera txapelketa ezberdinetan jokatzen jarraituko du, "oraindik ere ez didate inondik ere deitu, eta nik lanean jarraituko dut gogotsu orain arte bezala. Urtarrilaren 4an, elite mailako 4 t´erdiko txapelketa jokatzen hasi nintzen. Maiatzean berriz, Zaldibarreko binakako txapelketa jokatuko dut, eta maila bera ematea espero dut".

**BERGARA** > GABONETAKO PILOTA SARIA

# Gabonetako Pilota Sarian ikuskizun ederra eskaini zuten pilotariek

Txapelketa urriaren 25 an hasi zen eta abenduaren 29an izan zuen amaiera. Guztira 131 pilotari aritu ziren jokatutako 290 partiduetan

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Pasa den abenduaren 29an amaitu zen Bergarako Udal Pilotalekuan jokatutako Gabonetako Pilota Saria. Guztira 131 pilotari aritu ziren maila ezberdinetan.

Honela barru jokoak, abenduaren 27 eta 29an ospatu ziren, eta benjamin mailan lau izan ziren txapeldunak: Julen Etxabarri, Julen Bilbao, Markel Muniategiandikoetxea eta Asier Jorge.

Alebinetan, Andoni Sanz, Joanes Plazaola, Aitor Beristain eta Iker Ruiz de Larramendi. Infantil m ailan, Ander Aristi eta Jokin Osak irabazi zuten eta kadetetan, Andoni Fernandez izan zen irabazlea.

Eskuz banakako partiduetako finalak, abenduaren 29an izan ziren, eta benjamin mailako D taldean, Josu Elizburuk irabazi zuen. C taldean berriz, Luken Arriola izan zen irabazlea. B taldean Mikel Najerak irabazi zuen, eta A taldean Unai Zubizarreta izan zen garailea. Alebinetan, B taldean, Andoni Bretañak irabazi zuen eta A taldean Josu Zezeagak. Infantiletako finalean berriz, B taldean, Daniel Diez izan zen irabazlea.Azken finalak, abenduaren 27an jokatu ziren, eta infantil A taldean, Jokin Etxabek irabazi zuen. Kadete mailan, Beñat Rezusta izan zen garailea, eta gazte mailan, Aritz Rezusta nagusitu zen; seniorretan Ander Muguruza izan zen txapelduna..



**PROMESAK** Argazkian abenduaren 27 eta 29an finala jokatu zuten pilotariak eta antolatzaileak. IÑIGO ZAITEGI



**SARIDUNAK** Argazkian abenduaren 27an finala jokatu zuten pilotariak eta antolatzaileak. IÑIGO ZAITEGI

**ZIKLO KROSA** > TXAPELKETA

# Jone Muxika, Euskadiko ziklo kros txapelduna

Abenduaren 30ean Bermeon jokatu zen Euskal Herriko ziklo kros txapelketa irabazi zuen

Elgetako txirrindulariak Espainiako txapelketan parte hartuko du, zapatuan, Burgosen



**MUXIKA** Argazkian, Elgetako txirrindularia Osintxun jokatutako lasterketan. GOIENKARIA

**M.B.** > BERGARA
Elgetako txirrindulari Jone Muxika Euskal Herriko ziklo kros txapelduna da, abenduaren 30ean Bermeon jokatutako lasterketa irabazita. "Egia esan, gustura bukatu nuen lasterketa", esan digu Muxikak, "eta gustura jantzi nuen txapela". Halaber, elite mailako mutilen lasterketa David Secok irabazi zuen.

**DENBORALDI ONA**
Bada, Bermeoko txapelketa ez da Elgetako txirrindulariak denboraldian irabazi duen lasterketa bakarra, aurretik Osintxun egindako proba irabazi zuen-eta. "Denboraldi ona egiten nabil, iaz egindakoaren antzera; eta, onena da, oraindik ez dela bukatu. Gauza asko egin behar ditut oraindik denboraldi honetan".

Gipuzkoako txapelketa ere eroan zuen. Abenduaren 6an, Asteasun jokatutako txapelketan, halako probetan onenen artean dagoela erakutsi zuen txirrindulari elgetarrak.

**ESPAINIAKO TXAPELKETA**
Esku artean duen hurrengo erronka, zapatuan, Burgoseko Villarcayo herrian jokatuko den Espainiako ziklo kros txapelketa da. Sasoi puntu onean dago elgetarra. "Ni asmo guztiekin noa Burgosera. Sasoi puntu onean nago, eta, aurreneko postuetan egoteko esperantza daukat", azpimarratu digu elgetarrak.

Zirkuitua ezagutzen duela aitortu digu, "ia laua da, tarteka zuhaitzen bat ere badago". Hiru kilometro inguruko ibilbidea izango da, eta gune teknikoa izango du. "Zati teknikoan eskailera batzuk igo beharko ditut, eta erreka bazterreko harrien gainean ere ibili beharko dugu", azaldu digu. Edozelan ere, txapelketa hauetan "maila oso ona" egoten dela azpimarratu digu Muxikak; "pozik nago Burgoseko proban parte hartzearren; iaz, ezin izan nuen Espainiako txapelketan parte hartzerik izan, justu proba baino aste batzuk lehenago lesionatu egin nintzen-eta".

## Zigor Urain ere, Espainiako txapelketan

Zigor Urain arrasatearra ere Burgosen jokatuko den txapelketan lehiatuko da. "Proba egingo dut, baina nire asmoa ondo pasatzea da. Ez daukat beste helbururik, halako txapelketan maila oso ona egoten da-eta". Urainekin batera, Espainiako txapelketan Iñigo Roldan eta Felix Zugasti lehiatuko dira.

Abenduaren 30ean jokatutako Euskal Herriko txapelketan ere lehiatu zen arrasatearra, "nire mailan seigarren tokian bukatu nuen, eta sailkapena orokorrean, hamargarren".



Zigor Urain, Osintxuko proban. GOIENKARIA

**FUTBOLA** > FINALEAN REALARI IRABAZI ZION EIBARREK

# Eibarrek eroan zuen Gabonetako futbol txapelketa

Gazte mailako txapelketan, Bergara, Eibar, Reala eta Beasain taldeak lehiatu ziren



**IRABAZLEAK** Eibartarrak, irabazitako trofeoarekin Agorrosinen. IÑIGO ZAITEGI

**M.B.** > BERGARA
Bergara futbol taldeak antolatuta jokatu zen abenduaren 28an Gabonetako gazte mailako futbol txapelketa. Aurtengoa 18. ekitaldia zen eta Ohorezko Ligan ari diren Bergara eta Beasain, eta, Nazional mailan jokatzen duten Eibar eta Reala lehiatu ziren. Eta guztien artetik Eibarrek eroan zuen txapelketa. "Eibar izan da talderik indartsuena.. Finalean oso errez nagusi zen", esan ziguten antolatzaileek.

**PARTIDUAK**
Lehenengo partiduan Bergara eta Eibar lehiatu ziren. Etxeko jokalariek maila ona eman zuten arren, Eibarrek irabazi zuen norgehiagoka (1-2). Realak eta Beasainek jokatutako partidua penalti jaurtiketetan erabaki zen donostiarren alde, lehiakoarauzko minutuak berdinketarekin bukatu ondoren (2-2).

Finalean, Eibarrek maila oso ona erakutsi zuen, eta erraz irabazi zion Realari, 3-0.

Pasa den abenduaren 20an, Donostiako Kursaalean Gipuzkoako Kirol Sariak 2007 banatu zituzten. Sarietako bat, Eskoriatza Kirol Elkarteko presidente Manolo Muñozi eman zioten, azken 32 urteotan, beti ere boluntario moduan, herriko kirolari guztia emateagatik. Jaso duen sari honetaz, eta orain arte kirol munduan egin duen ibilbide luzeaz hitz egin dugu.

**Manolo Muñoz** > Eskoriatza Kirol Elkarteko presidentea

# "Herriarentzat 32 urte lan egin eta gero, eskertzen da lan hori baloratzea"

JASONE ZABALA > ESKORIATZA

**Manolo Muñoz (Peñarroya Pueblo Nuevo, Kordoba, 1951), 16 urte zituela etorri zen Eskoriatzara bere familiarekin. Esan daiteke kasualitatez, baina gogo handiz sartu zela kirol munduan, eta askok esaten duten bezala, Manoloren lanik gabe ez litzateke Eskoriatzan Kirol Elkarterik egongo. Honezkero, 24 urte daramatza presidente bezala, eta guztira 32 herriko kirol elkarteari lotuta. Pasa den abenduaren 20an, urte guzti hauetan egindako lan guztiagatik saria eman zioten Donostian.**



Manolo Muñoz Eskoriatza Kirol Elkarteko egoitzan, Donostian jasotako sariekin.
JASONE ZABALA

**Halako sari bat beti da eskertzekoa, ezta Manolo?**

Asko eskertzen da. Hemen ikusten baita pixka bat bada ere, urtetan zehar egindako lana. Oso gutxi gelditzen gara gainera, ezertxoren truke kirolaren alde lana egiten. Honek ez du esan nahi gauzak hobeto edo okerrago egiten direnik,bakar bakarrik bizitzak aldatu egin duela eta oso gutxi gelditzen garela, dugun guztia ematen musu truk. Gure elkartean esaterako, bertan lan egiten dutenek ez dute dirurik jasotzen. Guztiek gogoa eta kirolarekiko maitasuna erakusten dute, besterik ez.Positiboki baloratzen dut jasotako saria hau, batez ere jakinda saria Gipuzkoako eremu ezberdinetako jendeak nahi izan duelako jaso dudala.

**Eman dizuten sari honekin nolabait konpentsaturik ikusten duzu, hainbeste urtetan zehar egindako ahalegin eta bete-beteko arduraldia?**

Ez, ezta gutxiago ere. Eta ezta nik esaten dudan gauza bat, zuzendaritza-batzordean dauden nire kideek esaten dute hori. Ez nik ezta dauzkagun entrenatzaile, delegatu eta beste hainbat jendek ez dugu ezer eskatzen. Baina min ematen dit, Eskoriatza 4.000 biztanleko herri txiki bat izanda, elkartetik kanporako hainbat ekintza antolatzen ditugu, pentsaezinak asko, eta honek jende askoren lan bat du atzetik. Nire ustez, horretaz jabetu behar direnak ez dira jabetzen. Eta hau guztia aurrera eramateko erakundeen partetik laguntza gutxi ikusten da.

**Gaur egun gutxi egongo dira zu moduan hainbeste urtetan zehar eta ezertxoren truke, kirolaren alde hainbeste lan egiten dutenak, ezta?**

Ni eta beste jende asko dago ezertxoren truke lan egiten. Oso zaila da, elkartearen zereginei beharrezkoak diren orduak eskaintzeko prest dauden entrenatzaile eta zuzendaritzako kideak topatzea. Entrenatzaileek esaterako, astero zortzi ordu inguru eskaintzen diote elkarteari.

**Nola hasi zinen Eskoriatzako Kirol Elkartean lanean?**

Hamazazpi urterekin, 1968an, etorri nintzen Eskoriatzara. Nire anaia Daniel atletismoa egiten hasi zen, eta ni delegatu bezala hasi nintzen lanean. Eskubaloian ere jokatu nuen.

1981ean, inor ez zen presidente izateko aurkeztu eta elkartea egun hartan desagertu egin behar zen. Baina aurrera jarraitu genuen, nahiz eta hasierako urteak benetan gogorrak izan. Hala eta guztiz ere, errelebo falta zegoela eta 1984-85. urtean uztea erabaki nuen. Bi urte pasa ondoren baina, berriz ere presidente izateko aurkeztu nintzen eta gaur arte...

SARIA

**"Asko eskertzen da saria. Hemen ikusten baita urtetan zehar egindako lana"**

HASIERAK

**"Hasierak gogorrak izan ziren, inork ez zuelako nahi elkartearen kargu egin"**

ETORKIZUNA

**"Lana egiten jarraitu behar da, baina batez ere erakundeek inplikazio handiagoa erakutsi behar dute elkartearekiko"**

**Zein bilakaera izan du Eskoriatzan kirol munduak urte hauetan guztietan?**

Batez ere elkarteko kideen lanaz oso arro sentitzen naiz, orain arte Eskoriatzan eta kirolari dagokionean lan oso ona egin delako, eta urtetik urtera aurrera pausu handiak eman ditugulako. Nik beste edozein interesen gainetik, nire herria dago lehenengo, eta kirol mailan herrira ekarri edo herriarentzat egin dezakedan edozer gauza egin dut eta egiten jarraituko dut.

**Eskoriatzako Kirol Elkartean presidente zaudenetik, zein kirol mota zeuden duela 32 urte, eta zeintzuk daude orain?**

Garai hartan futbol talde bat zegoen, saskibaloia hasten zegoen, pilota eta mendia. Gaur egun aldiz, pilota, mendia, areto futboleko hiru talde eta saskibaloiko lau talde daude.

**Gipuzkoan, beste elkarte batzuetako kidea bazara, ezta?**

Gure zonaldeko Gipuzkoako saskibaloi federazioko arduraduna naiz. Baita, Euskal Saskibaloi Federazioko kidea ere, eta Euskal Areto Futbol Federazioko kidea.

**Jasotako esker ona eta gero, badaukazu kirol mundu honetan jarraitzeko indarra eta gogoa?**

Jarraitzeko gogoa daukat, ahal dudan arte behintzat bai, dudarik gabe. Askok esaten dute, elkartea ni gabe ez dela ezer, baina, ni elkartearen alde lan egiten duten pertsona horiek gabe ere, ez nintzateke ezer izango. Familia handi bat osatzen dugu.

**Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Lana egiten jarraitu behar da. Batez ere jendearen inplikazio aldetik, eta erakundeek ere, beraien lana egin behar dute. Elkartu behar direnak elkartu eta egoera aztertu. Elkartearen onurarako dena herriaren onurarako ere badelako.

**OMENALDIA** > SASKIBALOI FESTA

# Ainhoa Lazkanori eskainitako omenaldia saskibaloi festa bihurtu zuten lagunek

Aloña Mendi saskibaloi taldeak omenaldi berezia eta polita egin zion Ainhoa Lazkano jokalari ohiari

Beteranoak eta egungo jokalariak elkar neurtu ziren zapatuan




**OMENALDI HUNKIGARRIA** Argazkian jokalari guztiak eta Aloña Mendi Saskibaloi taldeko zuzendaritzako kideak Ainhoa Lazkanoren gurasoekin. JOSETXO ARANZABAL

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Orain dela hamar urte ustekabean hil zen Ainhoa Lazkano gaztea omendu zuten zapatuan Oñatin. Lehengo eta gaurko jokalariek neurtu zituzten indarrak Zubikoa kiroldegian egin zen saskibaloi festan. Egungo senior neskak eta senior mutilak gailendu ziren bi partidutan. Egoera fisiko onean daudela erakutsi zuten. Hala ere, orain dela hamar urte taldea osatzen zuten seniorrek ere maila bikaina erakutsi zuten.

Bi partidu jokatu ziren. Lehena, senior mutilek jokatu zuten. Garaipena egungo senior taldeak eskuratu zuen, 71-54.

Ondoren hirukoen jaurtiketa egin zuten; 30 segundotan 10 jaurtiketa. Ikuskizun polita eskaini zuten bai neskek eta baita mutilek ere. Nesketan Jone Arregik lau saskiratze egin zituen. Mutiletan, berriz, Alex Anduagak irabazi zuen hamarretik sei saskiratzerekin. Bigarren partidua, nesken artekoa, parekatua gertatu zen. Hala ere, egungo taldeak sasoi hobean dagoela erakutsi zuen eta 39-27 markagailuarekin garaipena eskuratu zuen.

**OMENALDI HUNKIGARRIA**
Partiduen ostean Ainhoa Lazkanoren gurasoei omenaldi hunkigarria egin zioten. Lore sorta eta X. omenaldirako espreski egindako giltzatako oroigarria banatu zieten. Aurten gainera, guztiak izan dira irabazle. Urteroko txapelketaren ordez, festa egitea eta partidu politak eskaintzea baitzen helburua. Hala, beteranoendako Ainhoa Lazkanoren argazkia zeraman kamiseta urdinak atera zituzten eta egungo jokalariendako kamiseta zuriak.



Senior mutilek beteranoei irabazi zieten zapatuko omenaldi festan. JOSETXO ARANZABAL

## Egungo senior mutilak nagusi partiduan

Gorka Judez entrenatzailearen mutilak egoera fisiko onean eta indartsu daudela erakutsi zuten. Hasieran, errespetuz irten ziren kantxara. Izan ere, urte askoan euren maisu eta erreferente ziren jokalariak zituzten aurkari. Lehen minututako urduritasunak albo batera utzi eta markagailuan gailendu ziren egungo seniorrak. Partiduaren bigarren zatian, senior beteranoek maila eta teknika bikaina erakutsi arren, eguneroko entrenamendu falta nabaritu zen. Izan ere, egungo senior gazteek nekea nabaritu zuten beteranoengan eta markagailuak gorantz egin zuen beraien alde. Ikuskizun entretenigarria eskaini zuten bi taldeek. Polita izan zen garai bateko txapeldunak eta askoren maisuak jokalari gazteen aurka jokatzen ikustea.



Egun nesken senior taldea ez dagoen arren ikuskizun polita eskaini zuten. JOSETXO ARANZABAL

## Senior neskek partidu nahiko parekatua eskaini zuten

Iker Zabaleta entrenatzailearen neskak ere gogor irten ziren kantxara eta garaipena eskuratu zuten. Egungo senior neska taldea ez dagoen arren, jokalariek oraindik forman daudela erakutsi zuten. Urduritasuna eta emozioa nabari zen kantxan. Izan ere, senior beteranoek ez dute ahaztu Ainhoa Lazkano taldekidearekin jokatutako partiduak. Hala ere, neskek ikuskizun polita erakutsi zuten. Lehen zatian azken senior taldea osatzen zutenak gailendu ziren; bigarren zatian beteranoak indarrak berreskuratu eta gogor egin zuten eraso saskiratze aukerak areagotuz. Hala, markagailua nahiko berdindu zen. Baina partiduaren laugarren laurdenean egungo seniorrek indarrak berreskuratu eta partidua irabazi zuten.

Urte berriarekin batera Realeko presidente karguan estreinatu da Iñaki Badiola (Pasaia, 1964). Eguenean Anoetan egindako ez ohiko batzarrean ordezkatutako akzioen babes sendoa lortu zuen (%72). Hautsak harrotu ditu Badiolak azken hilabeteotan eta ez du erronka makala aurrean: Realaren kirol zein ekonomia egoera zuzendu eta zaleen ilusioa berreskuratu.

**Iñaki Badiola** > Realeko presidentea

# "Jendeak aldaketak eta aire freskoa behar dituela sumatu dugu kanpainan zehar"



Iñaki Badiola Bergarako Gure Ametsa elkartean izan zen Gabonetan. E.M.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Orain arte Realeko zuzendaritzan ezagututako modeloarekin erabat apurtzera dator Badiola. Argi dago tipo bitxia dela; hasteko, bere solaskideei haien izena behin eta berriz errepikatuz zuzentzen zaie. Atzo Salamancara heltzear zegoela hitz egin genuen berarekin. Ez zuen debut onik izan: 3-2 galdu zuten txuri-urdinek.**

**Hautagai bakarra izan arren, espero zenuen halako babesa jasotzea eguneko batzarrean?**

Egia esaten badizut, lau afari jokatu nituen %65 baino gehiago lortuko genuela eta halaxe gertatu zen. Delegatutako boto asko eraman genuen batzarrera eta akzionista garrantzitsu askoren babesa jaso genuen aurreko egunetan. Egun ahaztezina izan zen eguenekoa, poz handikoa. Aitari eskaini nahi izan nion, urrian hil baitzen.

**Hautagai bakarra izateko, ez da kanpaina gozoa eta erosoa izan, ala?**

Gauza onekin geratzea nahiago dut. Jendeak interes handia azaldu du egon garen herri guztietan, Reala maite dutela konprobatzeko aukera izan dugu. Aldaketak eta aire freskoa nahi dituztela sumatu dugu. *El Diario Vasco* egunkariko hiru lagunek proiektua zapuztu nahi izan dute. Ez dakit inork dimitituko duen esandakoengatik... Bakoitza bere lekuan jarriko dugu momentua iristerakoan.

**Eta orain, zer?**

Azken sei urteotako dokumentazioa goitik behera aztertuko dugu, zehaztasun osoz, eta auditoria sakon bat egingo dugu AEBko enpresa batekin. Bihar, martitzena, argibide gehiago emango dugu.

**Hainbat fitxaketa agindu zenituen kanpainan, baina ez da ezer gauzatu oraindik...**

Gaur bertan bost fitxaketa egitea proposatuko diogu Coleman entrenatzaileari. Erdiko defentsa bat, ezker hegaleko defentsa eta erdilari bana, erasorako erdilari bat eta *killer* bat.

**Inposatutako fitxaketarik ez duela onartuko esan du Colemanek.**

Colemanek jokalari horiek ez baditu nahi, konbentzitu egin beharko gaitu arrazoiak azalduz Pako Aiestarani eta bioi. Edozein modutan, Colemanek Realean geratu nahi du, fitxaketak zeintzuk diren jakin nahi du eta ilusionatuta dago. Baina normala den moduan, bere iritzia kontuan izatea aldarrikatzen du eta Pako eta biok ados gaude hor.

**Ez da egon sekretismo apur bat kanpaina osoan zehar?**

Hala uste duzu? Mailu hidraulikoarekin sartuko garela esatea sekretismoa iruditzen zaizu? Gauzak normalizatu egin nahi ditugu, Ingalaterrako estilora. Komunikabide guztiei batera emango dizuegu gure ekintzen berri, bestela ezinezkoa da honen guztiaren kontrola izatea. Gaurtik ez nauzue asko ikusiko; nahiago dut isilean lan egin. Baina komunikabideok informazioaren partaide izango zarete.

**Asian saldu nahi dituzuen kamiseten kontuan, nolako eragina izango du horrek Astorerengan?**

Orain dela lau aste elkartu nintzen Astoreko arduradunekin eta argi utzi nien beraien produkzio kostuak ez direla lehiakorrak gaur egun. Txinan 35 aldiz merkeagoak dira. Astoreri aurtengo ekainean bukatzen zaio Realarekin duen kontratua eta zaila ikusten dut gurekin jarraitzea. Beraientzat produzitzeko gertu egongo ginateke etorkizunean.

**Asko hitz egin da proiektu txinoaz baina ez dago txinorik kontseiluan...**

Ez, baina etorkizunean egon liteke. Txinako kontuarekin ez dakit Gipuzkoan oso adeitsuak izan garen. Txiste errazera jo dugu askotan. Eta oraindik konturatu ez bagara ere, aurreratu egin digute haiek aspaldi, zentzu askotan gainera.

**Zer uste duzu ikasi behar dugula haiengandik?**

Gu baino langileagoak dira; oso solidarioak eta, aldi berean, gu baino abertzaleagoak. Eta zenbaitetan konnotazio negatiboak dituen arren, batasun handia dute proiektuak zuzentzen, ez dago alferrikako eztabaidarik.

## IBARREKO KIROL PRESIDENTEEN IRITZIA



**Jokin Antxia**
UDAko presidentea

Ez bera ez bere lantaldekoak ez dira kirol mundukoak, baina ausarta izan da. Kandidatura bat aurkezteko gauza izan den bakarra bera da. Aukera bat emango nioke. Promesa asko egin ditu. Dirua ateratzeko formula berriak aurkeztu ditu, berriak futbol munduan. Orain arte promesa asko egin ditu. Eguneroko gestioak erakutsiko du orain betetzeko gauza den ala ez.



**Jose Luis Azkarate**
Mondrako presidentea

Anoetako Belodromoan izan nintzen, eguneko ez ohiko batzar orokorrean, eta babesa eman nion Badiolaren proiektuari. Arrasaten egon zenean haren diskurtsoak konbentzitu ninduen. Ideia interesgarriekin iritsi da eta Realaren ibilbidea zuzentzeko pertsona egokia izan daiteke. Lehen mailara bueltatzea ezinbestekoa da eta hiruzpalau fitxaketa eginda lor daiteke aurten.



**Pedro Rico**
Bergara K.E.ko presidentea

Konfiantza eman behar zaio Badiolari. Normala den moduan ez du dena ondo egingo, ezta gaizki ere. Ilusioarekin datorrela nabari zaio eta ez da txarra hori. Orain ikusi behar agindutako fitxaketak gauzatzen dituen. Badirudi kirol kontuak baino ekonomikoak menperatzen dituela hobeto eta probintziako taldeak hortik onurarik ateratzen badugu, ongi-etorria.



**Jabier Azpiazu**
Aloñako presidentea

Aloña Mendi elkartearen babesa dauka Badiolak. Aitortu behar zaio ausarta izan dela bere burua aurkezten, Realaren egoera zein den ikusita. Itxaropena eta ilusioa ekarri du Realera eta azken urteotako ibilbidea zuzentzeko proiektu baliagarria izan daiteke Badiolarena. Oñatiko realzale gehienok konfiantza dugu berarengan zulotik ateratzeko. Pazientzia ezinbestekoa da.




**> LATZEN**
Talde oñatiarrak Eskoriatzako kiroldegian egingo du emanaldia otsailaren 2an **> 24**



**> ABY-KEM**
Bergarako boskoteak bere lehenengo diskoa, 'Azken guda' kaleratu du berriki **> 27**



**> TELEBISTA**
Mikel Laskurain aktore bergararra Gabon Zaharretako protagonistetako bat **> 29**



**MAGIA IKUSKIZUNA** Ikuskizunean zehar hamaika magia-trikimailu egin ostean, azken numeroak sortu zuen harridura gehien publikoaren artean. Magoak ere badira, alajaina! JOSETXO ARANTZABAL

**YLLANA TALDEA ESPALOIAN**

# Magia ere egiten dute!

**MAGIA SAIO TXUKUNA**
Pagagnini obran musika nagusi zen moduan, Buuu! antzezlanean magia hartu dute oinarri Yllanakoek

**GAZTEENDAKO OBRA**
Publiko gaztearendako egindako obra da eta, harrera ona izan zuen *Buuu*-k Espaloian

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Apustu segurua da Yllana Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Honakoan ere ez dute hutsik egin. Ez dira orain-dik hiru hilabete igaro Pagagnini izeneko obrarekin azkenekoz Espaloian izan zirenetik eta Madrilgo antzerki taldeak 220 lagun inguru eraman zituen Espaloira barikuan. Asko eta asko, bistan da, Yllanaren jarraitzaile finkoak.

Pagagnini obran musika izan dute oinarri Yllanakoek. Buuu! antzezlanean, berriz, magiarekin ausartu dira eta antzezle gazte horiek erakutsi zuten ez direla batere mago kaskarrak.

Ordubeteko emanaldia egin zuen boskoteak. Hiru lagun aritu ziren aktore lanetan eta umorez jantzitako magia ikuskizuna egin zuten beldurrezko istorio klasikoetako pertsonaiak oinarri hartuta. Hala, Espaloiko eszenatoki gainean ikusi genituen

(24. orrialdean jarraitzen du)

## Publiko fidela du Yllanak Elgetan, 220 lagun eraman zituen Espaloira

(23. orrialdetik dator)

eskeleto beldurgarria, Drakula, Frankenstein edo konkorduna.

**DRAKUL, IGORINA ETA FRANK**

Drakul magoa, Igorina konkorduna eta Frank lapurra dira *Buuu!* obrako hiru protagonistak. Drakul zoritxarrean jausitako magoa da. Gaizki atera zitzaion magia trikimailu baten ondorioz gizaki gizagaixo bihurtu zuen maitalea eta laguntzailea zuen Igorina. Sorginkeria desegiteko, trikimailua atzera ere errepikatu behar du baina horretarako laguntzaile bat behar du. Frank izango da laguntzaile hori, bere gazteluan lapurretan harrapatutako gajoa.

**MAGIAZ BLAI**

Yllanak egiten dituen obra guztietan bezalaxe, umorea da *Buuu!* antzezlanaren ezaugarri nagusia, baina bere berezitasuna, magia. Hamaika trikimailu egiten ikusi genituen barikuan Yllanako hiru aktoreak. Zapi bat makila bihurtu zuten eta makila atzera ere zapi. Sua arrosa bihurtu zuten eta beltz koloreko zapi bat motadun egin zuten. Zapiak kolorez aldatzen ere ikusi genituen, baita soka batekin trikimailuak egiten ere. Mahai batekin ere aritu ziren jolasean. Lurretik altxatu zuten birritan, ukitu barik. Ondo egituratutako ikuskizuna izan zen, magia trikimailuak errazenetik zailenera arte erakutsiz. Guztiak, gainera, umorez jantzita. Leuna izan zen progresioa. Ikusle asko ez ziren ohartu magia ikuskizun baten aurrean zirela azken trikimailuak liluratu zituen arte. Igorina kutxa baten barruan sartu zuten eta hiru ezpataz zeharkatu zuten. Guztiak kendu eta kutxa zabaldu zutenean, emakume polit eta liraina agertu zen, jatorrizko Igorina. Antzokiko argiak piztu zirenean ahoz-aho zebilen kontua honakoa zen: nola egin dute? Non egon da emakumea ezpatak sartu dituztenean? Eta nola agertu da arropaz aldatuta?

**PUBLIKOAREKIN JOLASEAN**

Barikukoa izan zen Yllanakoendako 2007ko birako azken emanaldia. Oporren usainean giro berezia zuten euren artean eta elkarri adar joka aritu ziren eszenatokian. Inprobisazio bat baino gehiago egon zen. Publikoak ere izan zuen bere tartetxoa. Barre algara handienak une horretan egin genituen.

### PUBLIKOAREN IRITZIA



**Asier Arrieta**
Bergara

"Primerako lana iruditu zait. Egin dute nahasketa bat, antzerkia eta magia egin dituzte, eta gustatu zait emaitza. Oso antzerki zalea ez naiz, baina badaude pare bat talde gustatzen zaizkidanak.



**Ibon Garitano**
Bergara

"Yllana gustatzen zait eta gaurko obra ondo egon da. Gaur, gainera, lehenengo lerroetan jarri gara eta ikuskizunaren parte izan naiz. Banuen susmoa. Oso urduri egon naiz aktorea hurbildu zaidanean".



**Itziar Olabe**
Elgeta

"Gustatu zait. Yllana beti gustatu izan zait eta Elgetara etorri diren guztietan ikusi ditut. Egiten duten umorea gustatzen zait gehienbat eta honakoan magia ere egin dute. Magia ikuskizun polita gainera!".

Yllanaren 'Buuu!' antzezlaneko lan taldea

## "Mago profesionalen aurrean aritu ginen behin, dibertigarria izan zen"

**L.Z.** > ELGETA

**Emanaldia Espaloian egin ostean izan ginen 'Buuu!' antzezlaneko lantaldearekin. Bost lagunek osatzen dute eta esan ziguten saioa ondo joan zela, gazteendako egindako ikuskizuna izanik ere harrera ona izan zuela Elgetan.**

**Zelan joan da Espaloiko funtzioa?**

Ondo. Espaloia ezagutzen dugu, aurretik ere egonda gaude *Splash* lanarekin, esaterako. *Buuu!* publiko gazteago batendako egindako obra da eta hori nabaritu egiten da publikoaren erreakzioetan. Baina Elgetan ondo joan da. Gu ere primeran egon gara eszenatoki gainean.

**Antzerkia, umorea eta magia. Denetarik egiten duzue obra honetan?**

Bai, eta arrakasta duen nahasketa da. Jendeak badaki Yllanaren proposamenak zein izaten diren, umorea izaten da gure ezaugarri nagusia. Honakoan magia ere egiten dugu, baina umorez jantzitako magia da eta harrera ona izaten du.



L.Z.

**Zenbat aldiz egin duzue antzezlana?**

Estreinatu genuenetik 200 bat emanaldi egingo genituen. Asko aritu gara, ondo ezagutzen dugu obra eta hori nabaritu egiten da eszenatoki gainean. Gaur, esaterako, soinu akats txiki batzuk izan ditugu. Ez da ohikoa, baina obra hain ondo ezagutzeak ahalbidetu egiten du akats horiek nolabait konpentsatzea.

**Aktoreak zarete, baina ikusi dugunez, magoak ere bai. Nola prestatu duzue ikuskizuna?**

Mago profesionalen laguntza izan dugu; oso baliagarria izan zaigu. Dibertigarria ere bada magia egitea, zinez.

**Magorik izan duzue publikoaren artean?**

Bai. Elgetan ezaguna duzuen Migue magoak urtero antolatzen du Magia Mostra bat Malaga aldean. Aurten, programazioaren barruan sartu gaitu. Magoendako aritu ginen eta oso dibertigarria izan zen. Gustatu egin zitzaien gure ikuskizuna. Askok esan ziguten identifikatuta sentitu zirela mago laguntzailearen figurarekin, mago aprendiza den horrekin.

**Magiaz trufa ere egiten duzue obran?**

Bai, eta ikaragarri gustatu zitzaien. Magoak umore handikoak dira, askok umorea erabiltzen dute euren ikuskizunak janzteko. Mago horiek izan ohi dira, gainera, normalean arrakasta gehien lortzen dutenak.

**MUSIKA** > ROCKA

# Eskoriatzan grabatuko du DVDa Latzen taldeak

### Oñatin egitekoak ziren kontzertua bertan behera geratu da, eta Eskoriatzan joko dute haren ordez

**L. KORTABARRIA/M. ARREGI** > OÑATI

Otsailaren 2an Oñatin, kiroldegian, jotzekoa zen Latzen, baina azkenean, Eskoriatzako kiroldegian izango da kontzertu hori, eta DVDa grabatuko dute. Governors eta Aby-Kem taldeekin joko dute Eskoriatzan. Oñatiko kontzertua bertan behera geratzen zela jakinarazi zuen Txintxarri Management-ek eguenean, "agenda eta arrazoi teknikoak" aipatuz.

Txintxarrik kaleratutako prentsa oharrean, taldeak "barkamena" eskatu zuen "izandako aldaketa eta sortutako eragozpenengatik". Txartelak erosteko lekuak eta zehaztasun gehiago laster jakinaraziko ditu Txintxarrik.

**BESTE HITZORDU BAT**

*Infernuko Ateetan Tour* biraren barruan, beste hitzordu bat gehitu zaio egitarauari: hain zuzen, urtarrilaren 19an, Tuterako Noboo aretoan joko dute. Bira urrian hasi zuten, eta dagoeneko bederatzi herri eta hiritan jo dute, orain azkeneko, Gernikan, zapatuan.




**LATZEN** Oñatiarrek Eskoriatzan joko dute, otsailaren 2an.

GOIENKARIA

MERKEALDI
honetan
prezio ñimiñoak
Boulevardean

el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz
Urtarrilaren 7tik
otsailaren 29ra

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Hedabide guztietarako
telefono berria eta bakarra
943 25 05 05

Goitb Goiena Telebista
Asteleheneko Goienkaria
Goienkaria
FM 107.7 ARRASATE IRRATIA
Goiena.net Debagoieneko Interneteko ataria

Kantari Debagoienean

# Saioen emanaldiak GOITBn



**NOIZ >** Urtarrilak 8.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Amaia Cadiñanos, Izaskun Mariñelarena eta Maider Urrutia.
**HERRIA >** Arrasate.
**URTEAK >** 12 urte.
**ABESTIA >** *Lo egin.*



**NOIZ >** Urtarrilak 10
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Leire Moñux, Nora Irizar, Olaia Sanchez eta Sara Peñin.
**HERRIA >** Bergara.
**URTEAK >** 9 urte.
**ABESTIA >** *Nirekin.*



**NOIZ >** Urtarrilak 8.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Esti Iturbe, Garazi Larrea, Maitane Altuna eta Nagore Uribesalgo.
**HERRIA >** Arrasate.
**URTEAK >** 9 urte.
**ABESTIA >** *Gau Txori.*



**NOIZ >** Urtarrilak 10
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Ariana Sasieta, Irati Murgiondo eta Miren Manuel.
**HERRIA >** Bergara.
**URTEAK >** 9 urte.
**ABESTIA >** *Laztana.*



**NOIZ >** Urtarrilak 8.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Janire Davila, Maider Garcia eta Andrea Onandia.
**HERRIA >** Arrasate.
**URTEAK >** 8 urte.
**ABESTIA >** *Amets bat.*



**NOIZ >** Urtarrilak 10
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Idoia Herran, Lorea Madinabeitia, Andrea Baladron eta Nerea Olabarria.
**HERRIA >** Bergara.
**URTEAK >** 11 urte.
**ABESTIA >** *Izar iheskorra.*



**NOIZ >** Urtarrilak 8.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Iñaki Barrutia. eta Julen Larrañaga.
**HERRIA >** Arrasate.
**URTEAK >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Narama.*



**NOIZ >** Urtarrilak 10
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Amaia Arregi, Irati Elorza, Irati Olaziregi eta Nerea Odriozola.
**HERRIA >** Bergara.
**URTEAK >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Ilargia.*



**NOIZ >** Urtarrilak 8.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Ainhoa Aranburu, Jone Aranzabal, Leire Errasti eta Nerea Garai.
**HERRIA >** Arrasate.
**URTEAK >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Eskutitza.*



**NOIZ >** Urtarrilak 10
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Alazne Irastorza, Amaia Ramirez de Okariz eta Mariñe Etxaniz.
**HERRIA >** Bergara.
**URTEAK >** 11 urte.
**ABESTIA >** *Bi minutuero.*




MAIDER ARREGI

# "Zuzeneko taldea gara eta gure helburua ondo pasatzea da"

Zuzeneko taldea da Aby-Kem. Ikuskizuna eta musika indartsua eskaintzeaz gain "ondo pasatzea" da taldekideen helburua

Bergarako 'Pantera Beltzek' uste baino disko gehiago saldu dute. Pozik lortutako emaitzarekin eta hurrengo kontzertuetan dena emateko prest

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

**Diskoaren salmentaren gainean hitz egin dugu Bergarako 'Pantera Beltzekin'. Aurreikusitako kontzertuen berri ere eman digute Aby-Kem taldekoek. Ahalik eta etekin handiena atera nahi diote kaleratu berri duten lehen diskoari.**

**Diskoa abenduan aurkeztu zenuten. Nola doa salmenta?**

Uste baino disko gehiago saldu ditugu. Guk geneuzkan ale gehienak saldu ditugu. Espero baino arrakasta handiagoa izan dugu eta oso pozik gaude. Kopia gehiago eskatu beharko ditugu!

**Diskoan iraupen luzeko sei abesti landu daude. Aukeraketa zeren arabera egin duzue?**

Estilo berdina mantentzen duten sei abesti aukeratu genituen. Hau da, arabiar kutsua dutenak eta *thrash* gogorra jorratzen duten sei abesti.

***Azken guda* da diskoaren izena, zergatik?**

Hasieratik oso garbi geneukan gure lehen diskoaren izena zein izango zen. Diskoko abesti baten izenburua da gainera.

**Aby-Kem zuzeneko taldea da?**

Bai, zuzeneko taldea gara. Musika onaz gain, ikuskizuna ere eskaintzen dugu. Gure helburua ondo pasatzea da.

**Batzuek diote metala hilda dagoela. Zer esango zenieke?**

Hori uste dutenak etor daitezela gure kontzertura eta ondoren ea berdina pentsatzen jarraitzen duten!

***Thrash* eta death metalak Alemanian, AEBetan edota Madrilen indar handia dauka. Euskal Herrian badu arrakasta?**

Euskal Herri osoan ez baina badaude herri eta inguru asko *thrash* metalak jarraitzaile sutsuak dituenak.

**Zein da ondorengo hilabeteetako kontzertuen agenda?**

Urtarrilaren 18an Aretxabaletako Haizea tabernan eskainiko dugu kontzertua. Otsailaren 8an, berriz, Bergarako gaztetxean izango gara. Eta otsailaren 9an, Eskoriatzako kiroldegian Latzen eta Governors taldeekin eskainiko dugu kontzertua.

**Danbaka Musika Lehiaketa irabazi zenuten. Taldearentzat bultzada izan zen?**

Guk diskoa kaleratzeko asmoa bageneukan. Baina Danbaka Musika Lehiaketa irabaztean diskoa grabatzeko erraztasuna izan genuen.

**2003an hasi zen taldearen ibilbidea. Zertan aldatu da?**

Egia esan nahiko aldatu da. Hasi ginenean ez genekien konposatzen. Poliki-poliki abestiak egiten eta estiloa finkatzen joan gara. Izan ere, hasieran metal arina jorratzen genuen, agresibitate gabea. Orain gogorragoa, bortitzagoa da lantzen duguna, *thrash* edota *deth* estilora hurbilduz.

**Abestiak eta letrak nork konposatzen ditu? Denok hartzen duzue parte?**

Bai, abestien konposaketan denok hartzen dugu parte. Taldekide batek agian ideia bat izan dezake eta abestiaren zati bat ekarri. Baina hasierako ideia edo abesti hori garatzen denok hartzen dugu esku eta gure iritzia eta ukitu pertsonala ematen diogu konposatzen ari garen abestiari. Ondoren, Mikel Alvarezek, taldeko abeslariak, hitzak jartzen dizkie abestiei.

**Ze talderekin identifikatzen da Aby-Kem?**

Egia esan ez gara beste talderen batekin identifikatzen. Ez daukagu talde erreferenterik eta haren estiloa egiten dugunik. Guk gure estilo propioa jorratzen dugu eta gustatzen zaiguna landu eta egiten dugu. Barnetik ateratzen zaiguna egiten dugu.



## Disko gogor eta indartsua abesti oso landuekin

Ez da harritzekoa diskoak arrakasta izatea. *Azken guda* darama izenburua diskoak baina Bergarako 'Pantera Beltzen' guda orain hasi da eta garaipena esku artean daukate. Zalantza gabe Aby-Kem taula gainean ikusi behar den taldea da. Ikuskizun aparta eskaintzen dute bergararrek. Taldekideek diote ondo pasatzea dela helburua eta hori igarri egiten da kontzertutan. Ikusleari sentsazioak transmititzea da zailena eta Aby-Kem-ek lehen unetik lortzen du ikuslea harrapatzea *thrash*-aren doinu bortitzetan.

**Maider Arregi**

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Baserria, lursailarekin. 240.404 euro. 943 76 65 03 edo 943 76 62 98.

**Aretxabaleta.** Erdigunean teilatupeko etxebizitza salgai. 72 metro koadro. Jantzita. 16 metro koadroko garajea. 659 64 67 38.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai Durana kalean. 90 metro koadro, hiru logela, bi bainu, egongela, terraza eguzkitsua eta ganbara. 685 76 44 77.

**Aretxabaletan.** Bi etxebizitza salgai erdialdean. Bata 115 metro koadro, lau logela, sukaldea, egongela, jangela eta bi komun. Bestea 75 metro koadro, bi logela, sukaldea, egongela, jangela eta bi komun. Biak igogailuarekin. 648 79 46 77.

**Arrasate.** Erdialdean apartamentua salgai. Zeharo berrituta. 645 73 04 69.

**Arrasate.** Etxea salgai Zigarrolan. 48 m2. Beheko solairua, berrituta. 196.000 euro. 665 73 25 74.

**Arrasate.** Otaloran, duplexa salgai. Bi logela, bi bainugela, sukaldea, egongela eta 20 metro koadroko terraza. Nahiko berria (12 urte). 696 79 43 89.

**Arrasate.** San Andresen. 61 m2. Sukaldea, bainugela, bi logela, egongela eta terraza. Igogailua. 12 m2-ko sotoa. Berritua eta sartzeko prest. Ongi kokatua. 669 14 67 92.

**Arrasate.** Uribe auzoan etxebizitza salgai. 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 88 metro koadro. Orain dela hiru urte berritutako sukaldearekin, eta goitik behera jantzita. 55 milioi pezeta. 699 74 54 09.

**Arrasate.** Zerrajera kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebaldera begira. 945 15 40 22.

**Arrasate** Etxebizitza salgai Grupo San Juanen. 60 m2,oso egoera onean. Altzariekin eta bizitzera sartzeko moduan. Ganbara eta sotoa dauka. Igogailua eta berogailua berriak. 600 90 76 73 edo 635 71 93 00.

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai Koldo Eleizalde kalean. Berritua eta bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, jangela, trastelekua eta garajea. Prezio interesgarria. Deitu 665 30 42 26 edo 627 34 91 77 telefono zenbakietara.

**Bergara.** 90 metro koadroko duplexa salgai Ibargarai 21 zenbakian. Jantzia eta estreinatzeko dago. Garajearekin. 619 71 70 53 edo 943 76 54 72.

**Bergara.** Alde zaharrean pisua salgai. 2 logela eta berogailua dauzka.Guztiz eraberritua. 649 56 34 92.

**Bergara.** Etxea salgai Koldo Eleizalden. 97 m2. Hiru logela, bi bainugela. Terraza eguzkitsua eta garajea. Deitu 655 71 03 23 zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta ganbara. Deitu 619 41 39 72 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Berritua. Bi logela eta ganbara ditu. Deitu 605 73 37 39 zenbakira.

**Bergara.** Sei urteko duplexa (etxebizitza+ganbara): 123 m2, sukalde hornitua, igogailua, gas naturala. Estudio, bulego edo antzeko bat ipintzeko egokia. Garajea aukeran. Deitu 699 49 14 14 telefono zenbakira.

**Bergara.** Zabalotegiko dorrean. Guztiz jantzita. Hiru logela. Deitu 690 68 37 88 zenbakira.

**Bergara.** Zabalotegin etxea salgai. Hiru gela, egongela, sukaldea eta bainugela. Deitu 653 70 84 04 telefonora.

**Bergara.** Zabalotegin etxebizitza salgai. 56 metro koadro. Sotoarekin. Guztiz jantzita. Deitu 678 53 40 43 zenbakira.

**Bergara** Basalgo auzoan baserria salgai lursailarekin. Deitu 610 73 65 40 edo 943 76 19 28 telefono zenbakietara.

**Elgeta.** Etxea salgai Elgetan. Bi logela, ganbara, igogailua. 946 81 71 97.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Igogailua dauka. Hiru logela, sukaldea, komuna eta ganbara. Aukera ona. 137.032 euro. 645 71 76 25.

**Elgeta.** Lau urteko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela-jangela, garaje-trastelekua. 239.000 euro. 655 45 07 26.

**Eskoriatza.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, lau logela, bi bainugela eta beste bi terraza ditu, baita gas bidezko berogailua ere. Erabat berritua. Deitu 636 57 76 13 telefonora.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai Dorleta auzoan. 82 metro koadro. Lau logela, sukalde-jangela, bainugela eta lehortegia ditu. Berogailua du. Oso eguzkitsua da. 210.000 euro. Aukera paregabea. Deitu 645 97 45 64 zenbakira.

**Nafarroa.** Urederra inguruan bi solairuko etxea salgai. 123 metro karratu. Berritua. 185.000 euro. 943 76 00 03.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Aozaratzan, 67 metro koadro, jantzita, 2 logela, ganbara. Deitu 943 78 26 54 edo 943 78 30 56 telefono zenbakietara.

**Oñati.** Apartamentua salgai Arantzazu kalean. Etxabea da (baxua). Bi logela, sukalde-egongela eta bainugela. Guztiz berritua, estreinatzeko. Deitu 669 73 18 23 edo 657 77 91 74 zenbakietara.

**Oñati.** Zubillaga auzoan. 79 m2. Hiru logela, sukaldea, sala, komuna eta ganbara. 41 miloi, negoziagarriak. Deitu 635 71 41 39 edo 943 08 13 25 telefono zenbakietara.

**Oñati** Apartamentua salgai. Kalegoienako plaza berrian kokatua. Bi logela, bainugela, sukalde-egongela eta trastelekua. Egoera onean. Deitu 605 77 46 79 zenbakira.

**Oñatin** etxebizitza salgai, San Lorentzo auzoan, 90 metro koadro, 3 logela, sukaldea, bi komun, estudio bat, dena jantzita, bi balkoi, garajea eta ganbara. 324546.536 euro. Deitu 943 71 60 56 edo 606 96 16 13 telefono zenbakietara.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Etxebizitza alokagai herriko plazan. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta berogailua dauzka. Lehenengo solairua. 945 44 53 60.

**Aramaio.** Aramaioko plazan etxebizitza errentan ematen da. Lau logela eta bi komun. Deitu 945 44 53 60 zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza emango nuke errentan. Bi logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela ditu. Unibertsitatetik gertu dago. Deitu 634 40 37 03 zenbakira.

**Arrasate.** Gesalibar auzoan etxebizitza daukat alokagai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna ditu. Deitu 696 82 05 65 edo 943 79 80 70 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Hartzen duena neska bada, hobe. Deitu 943 79 82 43 zenbakira.

**Bergara.** Barrenkalean dagoen etxebizitza emango nuke errentan. Erabat berritua. Bi logela ditu. Jantzia dago. Deitu 656 85 38 30 telefonora.

**Eskoriatza.** Guztiz jantzita. Deitu 943 71 46 27 zenbakira.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta edo Arrasaten** etxea errentan hartuko luke bikote batek. 610 82 02 17.

**Arrasate** inguruan langile gazte batek logela hartuko luke errentan. 630 43 72 96.

**Arrasateko neska batek** etxea errentan hartuko luke, Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. 699 06 31 76.

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke erdialdean. Ez du zertan berria izan. 669 64 76 28.

**Debagoiena.** Bi edo hiru gelako etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 662 26 85 84 telefonora.

**Debagoiena.** Etxea hartuko nuke errentan. 691 41 69 52.

**Donostian** logela bat hartu nahi dut etxe partekatuan. 30 urte ditut eta lanean ari naiz. Deitu 655 73 23 34 telefonora.

**Logela** bat hartuko nuke Bergaran edo Arrasaten, langileekin. 30 urteko neska bat naiz. Deitu 655 73 23 34 telefono zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 200 euro (ura, kalefakzioa eta argia) hilero. Unibertsitatetik gertu. Deitu 652 73 46 19 zenbakira.

**Arrasaten.** Jendea behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 630 43 72 96 telefonora.

**Bergara.** Bolun gela bat errentan ematen da. Deitu 670 85 86 68 telefonora.

**Bergaran,** Arrasaten edo Gasteizen gela bat alokatuko nuke. 30 urte ditut eta lanean ari naiz. 655 73 23 34.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Lezaman. Aukera aparta, 15.000 euro. 947 08 00 16.

**Bergara.** 37 metro koadroko garajea salgai Zubiaurren. 606 65 97 82.

**Eskoriatza.** Garaje itxia salgai Aingeru ibiltokian, gasolindegitik gertu. 607 43 84 55.

**Oñati.** Garaje itxia Olapoto auzoan. 17 m2. 943 08 18 13 edo 677 42 57 94.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea errentan Kontzezino kalean. 943 79 54 06 edo 655 71 81 84.

**Arrasate.** Garajea errentan emateko Uarkapen. 675 71 59 92.

**Arrasate.** Uarkapen garaje itxia errentan ematen dut. 110 euro hileko. 699 49 14 32.

**Arrasate.** Usaetxen garaje plaza errentan. 605 74 52 02.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Trastelekua** salgai Zurraderon (Bergara), motorra gordetzeko egokia. Neurriak: 5,80x1,80. Prezioa: 8.000 euro. Deitu 18:00etatik aurrera 678 43 31 07 telefono zenbakira.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aramaio.** Aerobikeko irakaslea behar da urte osorako. Deitu 665 72 62 83 zenbakira.

**Bergara.** Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta adineko pertsona bat zaintzeko. Goizez eta arratsaldez. Deitu 635 75 57 77 telefonora.

**Bergara.** Emakumea behar da etxean lan egin eta umeak zaintzeko. Deitu honako telefono hauetara. Deitu 943 76 50 63 edo 690 77 66 03 zenbakira.

**Debagoienean** edozein motako lanak egingo nituzke. Deitu telefono 659 58 67 69 zenbakira.

**ARRASATE-ARETXABALETA**

**Okindegi-gozotegiak zerbitzari/dendaria behar du. Esperientziaduna. 645 99 67 06**

**Bergara.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Urtarriletik aurrera. 943 76 50 63.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska lanerako gertu. Garbiketa lanak, ostalaritzan lan eginda, nagusiak edo umeak zaintzen. Esperientzia zerbitzari lanetan. Sandra. 680 60 18 24.

**Arrasate** edo Aretxabaleta. Neska lanerako gertu. Sukalde laguntzaile lanetan eskarmentua. Garbiketa lanetarako eta umeak zein nagusiak egunez zaintzeko prest. Ana. Deitu 625 17 98 03 zenbakira.

**Arrasate-Bergara.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko, garbiketak lanak egiteko edo ile apaintzaile laguntzaile jarduteko. 619 65 56 75.

**Arrasate.** Aldi baterako edozein lanetarako gertu. Bai goizez zein arratsaldez. Deitu 616 32 90 12 telefonora.

**Arrasate.** Emakume batek adindunak edo umeak zainduko lituzke, eta garbiketa lanak ere egingo lituzke. Deitu 943 79 13 10 telefonora.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Deitu 943 79 78 43 edo 665 74 51 22 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Emakumea gertu adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko, goizez zein arratsaldez. 636 91 91 81.

**Arrasate.** Emakumea gertu egunean bi orduz garbiketak egiteko. Rosi. 943 77 16 01.

**Arrasate.** Lan bila dabilen mutila naiz: zerbitzari, iturgin laguntzaile, margolari edota sukaldeko laguntzaile moduan jardun dezaket. Baita pertsona nagusiak zaintzen ere. 666 75 73 21.

**Bergara.** Emakume bat etxeko lanak eta adineko pertsonak zaintzeko gertu. Deitu 618 93 59 29 zenbakira.

**Bergara.** Emakumea gertu sukaldari laguntzaile, garbiketa lanak eta adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko. Deitu 664 38 49 76 zenbakira.

**Bergara.** Garbiketa lanak egingo nituzke, elkarte, taberna edo dendatan. Deitu 650 00 58 48 zenbakira.

**Bergara.** Mutila gertu pertsona nagusiak zaintzeko, arotz lanetan laguntzeko, igeltsero lanetarako... Deitu 685 42 72 80 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume gaztea garbiketa lanak edo okindegian lan egiteko gertu. Deitu 638 62 23 47 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume gaztea lanerako gertu. 688 64 64 26.

**Debagoiena.** Emakumea gertu arratsaldeko 3ak arte etxeko lanak egin, lantegi edo bulegoak garbitu edota pertsonak zaintzeko.Maura. 637 06 16 31.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egin edo pertsonak zaintzeko. 639 02 00 81.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko.Deitu 610 84 94 85 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea prest nagusiak edo umeak zaintzeko. 663 65 78 43.

**Debagoiena.** Era guztietako ordenagailuak konpondu, instalatu edota gertatzen ditut.Aaron. 659 58 67 69.

**Debagoiena.** Eraikuntzan lan egingo nuke. Urtarriletik aurrera. Esperientziarekin. Deitu 696 48 42 50 telefonora.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gazte bat gertu pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketak egiteko edo sukaldari laguntzaile jarduteko. Deitu 638 23 26 29 zenbakira.

**Debagoiena.** Gizonezko gaztea eraikuntza alorrean lan egiteko gertu dago. Bigarren mailako ofiziala. Deitu 696 48 42 50 telefonora.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu edozein lan egiteko.Arkaitz. 608 14 68 03.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu zerbitzari, garbitzaile, nagusien zainketan edo sukaldari laguntzaile jarduteko. Deitu 627 65 02 71 telefonora.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. Deitu 645 72 92 87 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. Deitu 688 65 33 01 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. Arratsaldez edo gauez. 685 70 76 25.

**Emakumea** atariak edo etxebizitzak garbitzeko prest. Segurua daukat. Deitu 695 58 88 63 telefonora.

**Oñati.** Neska bat gertu tabernak edo elkarteak garbitzeko. 635 70 07 92.

**Txakurrak** paseatzeko gertu, Arrasaten edo Bergaran. Deitu 696 38 10 07 telefonora.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Bergara.** Zientzietako klaseak ematen ditut (Matematika, Fisika, Kimika, Biologia eta Geologia), Lehen hezkuntzako, DBH-ko eta Batxilergo kurtsoetan dauden ikasleentzat. Arreta pertsonalizatua eta ikaslearen etxean. 627 85 20 80.

**Bergara** Ikasketadun gazte bat Lehen hezkuntzatik Batxilergorainoko haurrei klase partikularrak emateko prest dago. 645 71 81 84 edo 645 71 81 84.

**Gitarra** elektrikoa eta akustikoa ikasteko eskolak ematen dira. Ibon. 635 72 19 69.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana** salgai. 1990ekoa, egoera onean. 8.000 euro. 686 86 01 62.

**BMW** F 650 GS motorra salgai. 2.500 kilometro ditu, bi urte eta hainbat osagarri. Oso egoera onean dago. 6.400 euro. Deitu 636 85 74 43 zenbakira.

**Nissan Almera** salgai. 2,2 di. 16 v. Sport. 646 03 39 45.

**Opel Kadett** GSI autoa salgai. Egoera onean. Arratsaldez deitu. 658 72 11 49.

**Seat Alhambra** monobolumena salgai. 130 ZP. Zazpi lagunentzako. Egoera onean. 50.000 km eta 2004koa. 20.000 euro. 653 71 04 56.

**Seat Arosa** 1.0 autoa salgai. 50 ZP. 1999koa. 85.000 km. 2.200 euro. Egoera oso onean. Deitu 655 71 75 27 telefonora.

**Seat Ibiza.** 1.9 diesela. 1999. urtekoa. Zuria. Hiru atekoa. Erremolkea eramateko bola dauka. 2.500 euro, negoziagarriak. Deitu 677 83 47 29 zenbakira.

**Volkswagen Transporter TDI** furgoneta salgai. 2004koa, 95.000 km. 1.9 motorra, 104 ZP. Aire girotua, berogailu estatikoa, atzekoa muntatuta. 685 72 11 67.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Debagoiena.** 2 urteko zaldi arabiarra salgai, kartarekin. Deitu 647 64 02 81 zenbakira.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Archos** telebista salgai. Oso prezio ona. 666 53 95 39 edo 607 79 10 00.

**Gitarra elektrikoa** salgai. B.C. Rich. Warlock modeloa. Anplifikatzailea ere salgai. Marshall. Berriak dira. 679 21 35 07.

**Karabana** salgai. Bürstner Holiday. AL-KO egonkortzailearekin. Hozkailua, hiru su eta Thetford komuna. Truma berogailua. Telebistarendako antena. Udako Fiamma toldoa eta neguko abantzea. 3.500 euro. Deitu 655 70 16 44 zenbakira.

**Gitarra** elektroakustikoa salgai. Yamaha AE 500 modeloa. 649 66 49 56.

**Ipod Classic** salgai. 30 GB. 100 euro. 666 53 95 39.

**Karabina salgai** Karabina erdiautomatikoa saltzen dut, 22koa. Berri-berri dago. 943 76 56 94.

**Mahai obalatua** salgai. 136x92 cm, luzagarriarekin. 200 euro, negoziagarriak. Asier. 617 17 15 88.

**Mendi bizikleta.** Mondraker Foxy. Suspentsio bikoitza. Fox aurrean eta Manitou atzean. Shimano deore frenoak. LX eta XT. 685 71 63 75.

**Solariuma salgai.** 100 euro. Deitu 666 53 95 39 zenbakira.

**Torlojutzeko puntak** salgai. Prezioa adostu egin daiteke. 685 71 39 85.

**Ume-kotxea** Ume-kotxea salgai, bikiendako. Jane Twin Two markakoa + 2 Matrix Pro. Sei hilabete erabilita eta egoera oso onean. Deitu 645 00 99 35 edo 636 51 54 79 telefono zenbakietara.

### 802. EROSI

**Bigarren eskuko** soinu handia erosiko nuke. Iker. Deitu 635 00 69 26 telefonora.

**Trikitia.** Zero Sette Castelfidardo trikitia erosiko genuke. Deitu 943 76 02 92 zenbakira.

### 804. HARTU

**Bergara.** Ortua jartzeko baso lurra erosiko nuke. Deitu 699 85 49 58 telefonora.

### 806. GALDU

**Argazki kamera digitala** galdu dut Bergarako taxi geltokian. Sarituko da. 605 71 77 11.

**Urrezko belarritakoa** galdu nuen Bergaran, Bolutik Labegaraietako bidean. 678 61 50 45.

**Urrezko** eskumuturreko bateko txapa galdu nuen. Inskripzio bat du: *Ander. 10-07-07*. 687 43 17 14.

### 807. AURKITU

**Argazki kamera digitala** aurkitu dut mendian. Deitu 607 97 61 85 zenbakira.

**Patinetea** aurkitu nuen Bergarako espoloian. 666 21 57 72

### 808. BESTELAKOAK

**Ugarrixa elkarteak** bazkideak behar ditu Bergaran. Hileko kuota bakarrik ordaindu behar da. 609 59 19 23.

**Bateria** joko nuke dantzaldietan aritzen den talde batean. Beste proiektu zintzoren baten ere joko nuke. 687 58 65 69.

**Bergaratik Donostiara** automobilean joan-etorria egiteko aukera eskainiko didan norbaiten bila nabil. Astegunetan, egunero. 697 56 29 18.

**Tarot** kontsultak. 943 76 62 14

Urtarrilak 7a:
156. zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, urtarrilak 7, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Saridunak**

**Realeko txaleko bat**
- Mertxe Agirreurreta Ruiz de Alegria (Arrasate)

**XABIER ARREGIren 'HERRIA, HIRIA, NAZIOA'(Pamiela argitaletxea) liburu bat**
- Edurne Kortabarria Ortueta (Aramaio)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

**157. zozketako sariak**

REALEKO TXALEKO BAT ETA
XABIER ARREGIREN
'HERRIA, HIRIA, NAZIOA'
(PAMIELA ARGITALETXEA) LIBURU BAT

**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko:
943 08 10 50
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
38 euro
2008ko urteko kuota

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## astea GOITBn

### Astelehena, 7



**> Preferente mailako taldeen jardunaldia**
**21:15**
Futbola izango da nagusi gaurko Harmailatik saioan. Mondrak eta UDAk etxean jokatu duten preferente mailako jardunaldia landuko da.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea: Ttipi TTapa.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ilunpean
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Berbaire.
**16:15** Animalia.
**16:45** Berriak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Hitz bitan.
**18:15** Ikusten.
**18:45** Berriak.
**19:15** 2x2.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Harmaillatik.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea.
**22:15** Kirolari.
**22:45** Berriak.
**23:15** Harmaillatik.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** 28 Klipa.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 8



**> Julen Iriondok aurkeztuta, 'Berbaire'**
**21:47**
Kazetari oñatiarrak gonbidatuta, ibarreko hainbat gonbidatu batuko dira Berbaireko mahainguruan gure gaiez berba egiteko.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Horry.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea.
**14:15** Harmaillatik.
**14:45** Berriak.
**15:15** 2x2.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Kirolari.
**16:15** Eltze beroa
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** 28 Klipa .
**18:15** Musikantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak: Horry.
**19:45** Berriak.
**20:15** Kantari
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire
**22:15** Animaliak.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusmira.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Erreportajea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 9



**> Azken berriak GOITBko albistegietan**
**14:45**
GOITBko albistegiak indar berrituta datoz: ia orduro izango dugu ibarrean gertatzen denaren berri. Azken berriak eskainiko dituzte..

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Kantari.
**14:15** Eltze berioa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Animaliak.
**16:15** Teknopolis.
**16:45** Berriak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** 2x2.
**18:15** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Zaharrak berri. .
**20:45** Berriak.
**21:15** Hitzbitan.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Zu kazetari.
**22:15** Ur eta lur.
**22:45** Berriak.
**23:15** Teknopolis.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Jazmina.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 10



**> 'Musikantoi' saioan, euskal musika onena**
**22:15**
Ibarreko eta euskal musika arrakastatsuena entzuteko aukera eskainiko digu Maider Arregi kazetariak Musikantoi saioan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Zaharrak berri.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Marazki bizidunak.
**14:15** Zu kazetari.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Animalia.
**16:17** Teknopolis.
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** 2x2.
**18:15** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Kantari.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire.
**22:15** Musikantoi.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusten.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Ilunpean.
**00:15** Emisio amaiera

### Egubakoitza, 11



**> Alex Sardui izango da 'Ilunpean' saioan**
**22:15**
Iker Barandiaranek gonbidatuta, Alex Sardui gernikarra izango da GOITBko platoan. Exkixu taldeko abeslaria eta telebista aurkezlea da.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Kantari.
**14:15** Animaliak.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Eltze beroa.
**16:15** Musikantoi.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean.
**18:15** Eerreportajea.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Ikusmira .
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki biziduna.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** 2x2.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Musikantoi.
00:15 Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Gabon egunetako kontuak eta asteburuko kirola**
**10:30**
Jai egun hauetan izandako kontu bitxiak ekarriko dituzte irratira asteon. Gainera, gaur, astelehena, asteburuan gure taldeek jokatu duten partiduen berri emango digu Xabier Urtzelai kazetariak.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Herrietako kronikak
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31 irratia@goiena.com))
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** EuskadI Irratiko albistegia.
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak.
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua. Astean egindako hainbat elkarrizketa eta asteak emandako albiste onenak laburtuko dituzte.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

## asteko hitzorduak

### Musika



BERGARA
**> The Upper Room gospel taldea udaletxeko osoko bilkura aretoan**
Eguenean, hilaren 10ean, eskainiko dute The Upper Room donostiarrek kontzertua udaletxeko osoko bilkurako aretoan. Emanaldia 19:00etan izango da. The Upper Room taldeak gospel musika egiten du.

### Musika



ARRASATE
**> Censurados eta Scam taldeak 3.60 aretoan izango dira egubakoitzean**
Hilaren 11an, egubakoitzean, eskainiko dute kontzertua Arrasateko 3.60 aretoan Madrileko Censurados eta Aretxabaletako Scam taldeek. Aretxabaletarrak 2004an hasi ziren musika egiten; punk-rocka egiten dute.

### Erakusketa



ARRASATE
**> Kulturateko klaustroan txontxongiloen gaineko erakusketa zabaldu dute**
Urtarrilaren 27a arte egongo da zabalik erakusketa Kulturateko klaustroan. *Txontxongiloaren artea* izenpean, txontxongiloen gaineko hainbat sekretu eta bitxikeria ikusteko aukera egongo da Kulturaten.

## gertutik



**Mikel Laskurain**
Aktorea

# "Grabazioa egiteko, turroia jaten 15 egun lehenago hasi ginen"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

**Urte berria *Horideketa 2008!* saioarekin hasi du Mikel Laskurain bergararrak (1965). Aspalditik dabil aktore lanetan Laskurain: lehenengo instituzioan ibili zen eta gero Peter Kobersekin egin zuen urtebete. Gure artean ezagun, berriz, *Goenkale*-ko Felix bezala egin zen. Gero, *Wazemank*-en ikusi izan dugu eta, orain, *Noaoa*-n dabil. Bergarako euskara lau haizetara zabaldu du, lotsa barik, Laskurainek.**

**Noiz grabatu zenuten *Horideketa 2008!* saioa?**
Gutxi gora behera, 15 egun lehenago hasi ginen turroia jan eta xanpaina edaten. Jaiotzarik ez genuen jarri, baina, Gabon giroan aspaldi sartu ginen! Santo Tomasetan ere berdina gertatu zitzaigun, 15 egun lehenago, txistorra jan eta jan.

**Zaila izaten da ikusle bezala doan jendea Gabon giroan sartzea?**
Ez pentsa, xanpain pixka bat eman genien! Egia esan, gu ohituta gaude giro ezberdinetara egokitzen; baina, ikusleentzat zailagoa izaten da. Platoko irudiak abenduaren 21ean grabatu genituen; Ondarroako igeri elkartekoak etorri ziren.

**Zuk zeuk mahatsak jan zenituen Urtezahar gauean?**
Ez, gure etxean ez dago ohiturarik mahatsak jateko. Baina, telebista ikusten egon ginen, *Horideketa 2008!* Pena bat izan zen gauerdian, 12etan, egon zen akatsa. Lehenengo kanpai hotsak ezin izan ziren entzun. Ez dakit zer gertatu zen, ordenagailuekin arazoren bat-edo.

**Kanpaien ondoren, etxean geratzen dena zara edo kalera ateratzen zara?**
Beti esaten dut ez naizela aterako; baina, azkenean, atera egiten naiz buelta bat ematera. Hala ere, agudo joan nintzen etxera. Gainera, hurrengo egunean mendira joan nintzen; tontorrean xanpaina edan genuen eta gero, Gorlan, salda hartu genuen.

**Zer eskatzen diozu urte berriari?**
Ez dut asko eskatzen; aurtengoa bestekoa izan dadila, besterik ez. Urte ona izan dut lanean eta baita familia giroan ere.

## kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

# Urte barrixan, zaharrak barri!

Urte barri on danoiri! Gabonak be, etorri zian moduan fan dia. Beste urte bat hasi dogu, eta emuten dauenez behintzat, danak berdin jarraiketan dau.

Jai egun honeittan, aukeria izan dot handik hona ibili eta kuxkuxera lanak egitteko. Santamasekin hasi ginan; herri bazkaixa primerakua izan zan. Hori bai, **Termitak** izan genittuen onduan eta ogigerria egitten bukatu geben. Gero, bixamona oindiok pasau barik geukala, Gabon eguna heldu zan. Bergaran, asto eta guzti ibili zian bertso eskolakuak. **Olentzero** be etorri zan! Zer ekarri dotzu? Badakitt, bi urteko ume batek urdaiazpikua eskatu otzala... horrek bai jakin! **Ulman**, berriz, CD bat sartu ei daue otzaran; eta, esan doztainez, batzuei ez ei xakoi gustau. Zer, urdaiazpikua bakarrik, edo?

> **"Bi urteko ume batek Olentzerori urdaiazpikua eskatu otzan... horrek bai jakin!"**

Bukaketako, Urtezahar gaba. Kalimotxua eskuetan hasi dogu urtia... ezin esan gaizki hasi dogunik, hortaz! Urtero gero eta itxaflero gehixau entzuten da gaba horretan. **Luisenian**, taberna barruan bota ebein bat. Han euzenek belarriko mina pasau barik euko daue oindiok!

Antzuolarrak be mendizmendi, Oñatira etorri zian urtia ondo hastera. Gero, bueltarakuan, komerixak! Zer uste dozu, **Pulitzer**-erako beste izango dala?

## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle**.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena
edo bidali honako helbidera:
*astelehena@goiena.com*

## asteburuko albuma





**Elkartasun azokak.** Gabonak elkartasun giroan ixteko bi azoka izan dira Oñatin. Bidezko Merkataritza denda zabalik egon da abenduaren erditik, eta atzo euskal preso politikoen aldeko bigarren eskuko azokak hartu zion erreleboa. Arropa, osagarriak, jatekoak eta edatekoak, jokoak... izan dira salgai. Bateko eta besteko antolatzaileak gustura geratu dira izandako salmentekin.

## zorion agurrak

ARRASATE
**Igor, Urko, Enaitz eta Marta**
Abenduaren 11n, 12an, 17an eta 19an 5 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.





ARRASATE
**Jon Otxoa**
Abenduaren 15ean, 3 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.



ARRASATE
**Markel Lana**
Abenduaren 21ean, 2 urtetxo! Zorionak eta patxo haundi bat, familiako danon partetik!



ARRASATE
**Nahia Ruiz**
Abenduaren 22an, 4 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.

ARRASATE
**Ixone, Mikel eta Leire Menika Isazelaia**
Mikelek, 4an, eta Leirek, 25ean, urteak betetzen dituzte. Zorionak hirukote eta muxu mordo bat aitatxo eta amatxon partetik.





ARRASATE
**Aratz Ormeño Agirreurreta**
Abenduaren 22an, urtebetetzea. Dagoeneko bost urte. Egun ona pasa eta muxu pila, Zigarrolako zure lagunen partetik.



ARRASATE
**Iraitz Gutierrez Kortabarria**
Abenduaren 26an, 12 urte! Zorionak eta patxo haundi bat, etxekoen partetik!



OÑATI
**Juanito Gorosmendi Lazkano**
Abenduaren 27an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Oso ondo pasau zeure egunian eta laztan haundi bat, etxekuan partetik.



BERGARA
**Unax Murgizu Rodriguez**
Abenduaren 29an, urtebete. Zorionak eta muxu bat, familiaren partetik.



OÑATI
**Gaizka Maiztegi**
Abenduaren 30ean, 26 urte. Sorgiñen partetik, zorionak eta muxu handi bat guapo!



ARRASATE
**Nuria Murgia**
Abenduaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, lankideen partetik.



BERGARA
**Marisa Escobar**
Abenduaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, senarra, alabak eta Ibanen partetik.



ESKORIATZA
**Amets Olaso**
Urtarrilaren 1ean, urtebete. Familiaren partetik, zorionak eta muxu handi bat.



OÑATI
**Leire Zelaia Arrese**
Urtarrilaren 5ean, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik!



OÑATI
**Naroa Olalde Galdos**
Urtarrilaren 5ean, 6 urte. Zorionak eta patxo haundi bat, aitatxo, amatxo eta Maiaren partetik.



OÑATI
**Uxue Ugalde**
Urtarrilaren 6an, urtebetetzea. Zorionak sorgintxo... Muxu handi bat, Beñat, Amaia, aita eta amaren partetik.



ARRASATE
**Iker Arenaza Pagaldai**
Urtarrilaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, mutil haundi! Ondo pasau eta patxo haundi bat, etxekoen partetik.



OÑATI
**Maialen Iciar**
Urtarrilaren 6an, urtebetetzea. Zorionak *Max*! Primeran pasau zure eguna ta juerga ona bota! Kuadrillakuan partetik! Amz!



OÑATI
**Ainhoa Legaristi**
Urtarrilaren 7an, 27 urte. Zorionak guapiximaaa! Ondo ondo pasa ta muxu handi bat kuadrillian partetik.



ESKORIATZA
**David Garcia**
Urtarrilaren 7an, urtebetetzea. *Ai, mi Davixu*, 24 urte! Zorionak, zure kuadrilakoen partetik.



BERGARA
**Gorka Domenech**
Urtarrilaren 8an, 3 urte. Zorionak eta patxo haundi bat, bereziki, aitatxo, amatxo eta Aratzen partetik. Ondo pasa maitia.



ARRASATE
**Arantza Amozarrain**
Urtarrilaren 9an, urtebetetzea. Zorionak amama! Mila eta mila muxu, Txomin, Aitzol, Oxel eta Oskitxen partetik.



BERGARA
**Maialen Verguizas**
Urtarrilaren 9an, urtebetetzea. Zorionak, etxekoen partetik.



ARRASATE
**Amaia Letona Eriz**
Abenduaren 12an, 12 urte. Zorionak eta muxu asko etxeko danon partetik!

## jaiotakoak




**Nahia Alberdi Iribecampos**
Bergara > 3,100 kilo. 2007ko abenduaren 12an. Gurasoak: Itsaso ( Bergara) eta Juan (Bergara). Argazkian, umea, lo.



**Alazne eta Arkaitz Errasti Astola**
Elgeta > 2,700 eta 2,900 kilo. 2007ko abenduaren 19an. Gurasoak: Itziar (Elgeta) eta Juan Carlos (Elgeta). Argazkian, jaioberriak, amarekin.



**Ainhoa Novoa Iriarte**
Arrasate > 3,750 kilo. 2007ko abenduaren 19an. Gurasoak: Lizza Marie (Bolivia) eta Jose (Uruguai). Argazkian, jaioberria, aitarekin.



**Nur Garagorri Jebali**
Bergara > 3,610 kilo. 2007ko abenduaren 19an. Gurasoak: Neila (Tunez) eta Jon (Bergara). Argazkian, Nur jaioberria, gurasoekin.



**Haizea Bolinaga Kortabarria**
Arrasate > 3,460 kilo. 2007ko abenduaren 20an. Gurasoak: Miren (Arrasate) eta Iñaki (Arrasate). Argazkian, Haizea jaioberria, aitaren besoetan.



**Maialen Ormaetxea Agirre**
Arrasate > 4 kilo. Abenduaren 27an. Gurasoak: Ainhoa eta Mikel. Argazkian, Maialen jaioberria aitona Luis, amona Pilar eta amarekin.




**Olaia Ramos Andres**
Arrasate > 3,560 kilo. Abenduaren 30ean. Gurasoak: Maria Angeles (Arrasate) eta Igor (Arrasate). Argazkian, Olaia jaioberria, kuman, bapo lo.



**Aiuri Beristain Ruiz de Munain**
Aretxabaleta > 3,450 kilo. Abenduaren 31n. Gurasoak: Judit (Agurain) eta Iker (Lezo). Argazkian, amarekin.



**Alaitz Olabarrieta Diez**
Bergara > 3,680 kilo. Urtarrilaren 2an. Gurasoak: Iratxe (Arrasate) eta Asier (Arrasate). Argazkian, Alaitz jaioberria.



**Iker Jimenez Paz**
Bergara > 3,560 kilo. Urtarrilaren 3an. Gurasoak: Sandra Patricia (Bergara) eta Jose Alfredo (Bergara). Argazkian, Iker jaioberria, amarekin.




**Udane Lazkano Alonso**
Oñati > 3,120 kilo. Urtarrilaren 3an. Gurasoak: Tatiana (Antzuola) eta Igor (Oñati). Argazkian, Udane jaioberria, kuman, bapo lo.



**Aimar Sanchez Lizarralde**
Oñati > 3,400 kilo. Urtarrilaren 3an. Gurasoak: Nekane (Oñati) eta Rafa (Oñati). Argazkian, Aimar jaioberria, amarekin.



**Danel Manchon Castro**
Bergara > 3,730 kilo. Urtarrilaren 3an. Gurasoak: Rosi (Bergara) eta Luis (Elorrio). Argazkian, Danel jaioberria, kuman, bapo lo.



**Axier Telleria Suinaga**
Bergara > 3,550 kilo. Urtarrilaren 4an. Gurasoak: Idoia (Bergara) eta Xabier (Antzuola). Argazkian, Axier jaioberria.



**Oihan Zubiaga Ilarduia**
Bergara > 3,638 kilo. Urtarrilaren 5ean. Gurasoak: Idoia (Bergara) eta Aitor (Arrasate). Argazkian, Oihan jaioberria, kumatxoan.



**Irati Koskorrotza Papi**
Aretxabaleta > 3,400 kilo. Urtarrilaren 5ean. Gurasoak: Silvia (Argentina) eta Xabier (Lekeitio). Argazkian, Irati jaioberria, lo.



**Naroa Moreno Zubia**
Oñati > 3,090 kilo. Urtarrilaren 6an. Gurasoak: Oihana (Oñati) eta Pedro (Oñati). Argazkian, Naroa jaioberria, bapo lo.



**Markel Martinez Garitano**
Bergara > 2,850 kilo. Urtarrilaren 6an. Gurasoak: Eider (Bergara) eta Roberto (Gasteiz). Argazkian, Markel jaioberria, lo.

### 2007 urteko Debagoieneko azken jaioberria



**Eneko Garcia Tijera**
Oñati > 2,350 kilo. Abenduaren 31n. Gurasoak: Almudena (Oñati) eta Jose (Cadiz). Argazkian, amarekin.

### 2008 urteko Debagoieneko lehen jaioberria



**Aitor San Vicente Amado**
Arrasate > 2,750 kg. Urtarrilaren 1ean. Gurasoak: Maite (Arrasate) eta Iñigo (Arrasate). Argazkian, gurasoekin.

BABESLEA


Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

## hildakoak

- **Julio Uribeetxebarria Eraña.** Arrasaten, abenduaren 31n. 79 urte.
- **Crispin Salazar Salazar.** Bergaran, urtarrilaren 1ean. 83 urte.
- **Pedro Egaña Arrieta.** Antzuolan, urtarrilaren 1ean. 74 urte.
- **Maria Garro Amozarrain.** Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 96 urte.
- **Leonor Alonso Pinar.** Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 88 urte.
- **Txomin Ezkurra Errasti.** Aretxabaletan, urtarrilaren 2an. 85 urte.
- **Jesus Agirre Aldai.** Arrasaten, urtarrilaren 3an. 88 urte.
- **Juana Sagastizabal Zuloaga.** Bergaran, urtarrilaren 3an. 74 urte.
- **Concepcion Galan Garcia.** Arrasaten, urtarrilaren 3an. 73 urte.
- **Eugenio Otadui Belastegi.** Arrasaten, urtarrilaren 3an. 80 urte.
- **Maria Luisa Villar Beloki.** Eskoriatzan, urtarrilaren 4an. 88 urte.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2008-01-07

**Alex Sardui** > Musikaria

# "Iruzur egin ziguten abesbatzan hasteko"



**TELEBISTAN** Aspaldian telebistako aurkezle lanetan dabil Sardui. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

**Alex Sardui saltsero gernikarra Exkixu eta Gatibu talde arrakastatsuen abeslaria da. Aspaldi honetan, baina, ETBko *Bi errepide* saioan eta Danel semearekin jolasean ere ibiltzen da Sardui agertokietatik kanpo.**

**Nongoa duzu Sardui abizena?**

Izatez muxikarra dela uste dugu, 1504an-edo dauka jatorria. Askok galdetzen didate ea abizena kanpokoa den, baina esanahia da belar zarratua dagoen lekua.

**Zuen etxean kantuak eta bertsoak ez dira falta izan, ezta?**

Gure aita zortzi anai-arreba izan dira eta lehengusu asko gara. Gainera, beti ibili gara bertsotan eta kantuan... Enbeitatarrak ere tartean daude, pentsa.

**Zuk bertsoen eta abestiaren artean aukeratu behar izan zenuen?**

(Barre). Egia esan, umetatik asko abestu dut. Aitak neuk 3 urterekin grabatutako kantuak ere baditu gordeta. Ondo abesten nuela esaten du (barre).

**Ikastola klandestinoetan ikasi zenuen...**

Bai, 1969an hasi ginen. Ez geneukan liburuirik eta *Kili-kili*-a erabiltzen genuen. Andereñoak boluntarioak ziren, eta behin baino gehiagotan Guardia Zibilak eraman zituen eskola ematen zeudela.

**Asko zor diezu Gernikako abesbatzara eraman zintuzten neskei?**

(Barre). Iruzur egin ziguten. Sasoi hartan tabernan arratsalde-pasa egoten ginen, besterik ez zegoelako. Halako baten, neskek esan ziguten abesbatzako lokalean taberna merkeagoa zela eta han gustura egon gintezkela. Hara joan ahala, harrapatu egin gintuzten eta hiru urte egin genituen han. Batez ere barre egiten ikasi genuen abesbatzan.

**Gaztetxotan asko kostatu zitzaizun gustuko kirola aukeratzea? Futbolean, esku pilotan, tenisean, areto futbolean eta errugbian ibilia zinen...**

Bai, eta korrika ere egin izan dut. Beti gustatu izan zait kirola egitea, eta batez ere taldean. Gaztetan denak probatu nituen, eta azkenean areto futbolean gelditu nintzen. Oraindik ere kirol apur bat egiten dut. Autoestimua igotzeko aproposa da.

**Zelan gogoratzen duzu Exkixuren hasera?**

Ilusioa, indarra, gogoa... Maketa egin ostean, diskoetxe batek gugan arreta jartzea sinesgaitza zen guretzat. Ilusio handia genuen, eta horrek batu gintuen taldekideok. Garai hartako oso oroitzapen onak ditut.

TEST-A

**Herria:** Gernika. **Adina:** 41 urte. **Ikasketak:** Delineatzaile industriala eta Ur eta gas instalazioa. **Zaletasunak:** Musika, eta zeruko planetak eta izarrak. **Zer amets bete duzu?** Abestea. **Zer amets daukazu betetzeko?** Idaztea. Idazten ikasi gurako nuke, eta denbora gehiago eman idazteari. **Zer abesten diozu Danel semeari?** Berak ikastolatik ekartzen dituen abestiak. Dagoeneko pose ona dauka oparitu genion gitarra txiki batekin.

## ai, ene!



### Ahate gorputza duen lanpara

Animaliak gustuko badituzu eta etxean lanpara ezberdin bat eduki nahi baduzu, Sebastian Errazurizen diseinu hau duzu aukera onena.

http://www.meetsebastian.com

## biharamuna

Marijo Deogracias

### Urte berri-edo



Urte berriarekin batera Realak presidente berria dauka; **Iñaki Badiola** izendatu dute txuri-urdinen buru ala 'txuliurdinen' presidente izendatu dute? Egia esateko txiste errazak egiteko jokoa eman digu bai Badiolak, eta bigarrenari ihes egiteko umorea lagungarri bada, ondo-etorria. 2008an ere munduko agintari nagusiena ere aldatuko omen dute ipar amerikarrek. Bush erretiratuko da, eskerrak! Eta, akaso, eta historian lehenengoz, afroamerikar bat izendatuko dute EEBBko presidente. Behintzat Iowan **Barack Obamak Hillary Clintonek** baino boto gehiago lortu zituen.

Osterantzean, baina, betiko antzera. Garak ETAren bozero lana egin du berriz ere, urte hasieratik jada datorkigunaren estratega ahaztu ez dezagun. Eta hori gutxi balitz Espainiatik ere segitzen dute giroa berotzen; zapatuan ere **Jarek** antolatutako ekitaldia debekatu zuen **Del Olmo** epaileak (eta hori Entzutegi Nazionaleko goardiako epaile zela!). Hortaz, zaharrak berri, atzera ere. Eta atzo, errege 'majoen' egunean Bergaran bezperako parrandaren biharamona askorentzako; nik, badaezpada, Kanarietara alde egin dut eguzki beroz indarberritzera; gero ere zain izango dut urtarrileko malda.

Ahaztu aurretik, urte berri on denoi.

## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +14 | +10 |

Goiz hodeitsua eta euri arina arratsaldez. Haizeak arratsaldean ipar-mendebaldera aldatu eta tenperatura jaitsi egingo da.

www.euskalmet.net




Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea **KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea **KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea **KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea **KODEA**

**5767** zenbakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZa**

**smsoinu**
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) ı **KODEA**

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) ı **AITORMENA**
Aizkolari (Kortatu) ı **AIZKO**
Amore amore (Karidadeko benta) ı **AMORE**
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) ı **ASKATA**
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) ı **BEGIAK**
Bi Minutuero (Hertzainak) ı **BIMINU**
Dub manifest (Fermin Muguruza) ı **DUB**
Egunero (Hertzainak) ı **EGUNERO**
EH Sukarra (EH Sukarra) ı **SUKAR**
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) ı **ELLOS**
Enamorado de la muerte (RIP) ı **ENAMO**
Entzuidazu (Aterking's) ı **ENTZU**
Etorkizuna (Etsaiak) ı **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken7) ı **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) ı **GORA**
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) ı **BELAIR**
Haizea (Ken7) ı **HAIZEA**
Hegal egiten (Itoiz) ı **HEGAL**
Ikusi (Delirium Tremens) ı **IKUSI**
Ilargia (Ken 7) ı **KEN**
Inpernuen ate joka (Gatibu) ı **INPER**
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) ı **JOKIN**
Kaixo (Urtz) ı **KAIXO**
Lau Teilatu (Itoiz) ı **ITOIZLAU**
Laztana (Latzen) ı **LAZTA**
Lotuta egon arren (Kokein) ı **LOTUTA**
Loretxoa (EXKIXU) ı **LORE**
Marea Gora (Itoiz) ı **MAREA**
Musturrek sartunde (Gatibu) ı **MUSTURREK**
Nicaragua (Kortatu) ı **NICA**
No time for love(Hertzainak) ı **NOTIME**
Salve (La Polla) ı **SALVE**
Sarri Sarri (Kortatu) ı **SARRI**
Sorginen leizean (Exkixu) ı **SORGIN**
Txatxo (Zarama) ı **TXATXO1**
Txus (La Polla) ı **TXUS**

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) ı **BEXAMELA**
Bokespok (Kepa Junkera) ı **BOKESPOK**
Hik lan eta nik jai (Tapia) ı **HIK**
Itsas ontzi baten (Kaxiano) ı **ITSAS**
Kupela (Epelde eta Larrañaga) ı **KUPELA**
Mila galdera (Alaitz / Maider) ı **MILAI**
Nirekin (Gozategi) ı **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kepa Junkera) ı **HIRA**
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) ı **TXANPON**

**LOGOAK** (SMS 1)
**KODEA**




**OHARRAK**
**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri**
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.